

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

66. zenbakia

95eko martxoak 10



Badator Korrika

Jaunartzeko argazkiekin hasi gara...

FOTOETXE

• JOSEMRITELLERIN
ARGAZKILARIA
BEASAIN

FOTO Goen

LAKE OIARBIDE
ARGAZKILARIA
ORDIZIA

○ Joxe Mari Enparan, Zuzendaria ○ ORDIZIAKO "TORRESOL" KUTXA


Berez azpeitiarra da, baina Ordizian bizi da 78az geroztik. Ordiziarrak ditu emazte eta bi semeak. Joxe Mari Enparan peritu merkantila da, 40 urte, Banco San Sebastianen (eta hura irentsi zuen Hispanon) lan egin eta gero Kutxan sartu zen 77an; 11 urte daramatza Ordiziakoan. Urolako hizkerari eusten diola z eta s ez bereiziz, adib.) esaten diote (ez guk), baina geure euskara ere ikasi du. *"Hemen euskara hobea egiten da, baina Axkoiti-Azpeitin askoz gehiago. Orain 20 urte Ordizian euskara gutxi egiten zen (hori aldatzen dihoa), Urolaren aldean, 'hika' bera..."*

Gipuzkoa "poltsikuan"

Gipuzkoa diru-iturri, diru-sortzaile izan da beti. Bertan banketxe batzuk sortu dira historikoki (entitate txikiak handiagoek "jan" dituzte, "jango" dituzte gero ere....) eta Kutxaren historia luzea da, garai batean ere aurrezten zen. Gipuzkoan depositoan dauden 100 pezetatik 52 Kutxan daude eta beste 48ak gainontzeko diru-etxeen artean banatzen dira. Gehiengo bat, mundu oso bat beraz. *"Kutxa, eta lehengo bi kajak ere, bezeroak jaio ezkerotik hasi da lanean beraiekin: umea jaio eta kartila ireki ohi zaio eta gurasoei laguntzak ematen zaizkie*

(aurrezteko plana aportazio batekin eta oparia); hazitzen dihoan neurrian erlazioak handitzen doaz, ikasketa kredituak daude. Bizitza guztian mantentzen dira erlazioak".

Esan liteke bezeroak klasifikaturik dauzkatela eta, segun zein etapatan dauden, ondoen datozkien produktuak eta dagozkien zerbitzuak ematen dizkietela Kutxak. Zerbitzu integrala eskeintzen die gazte, langile, 3. adineko, profesional, autonomo, enpresa, dendari, udaletxe, e.a.-ei.



kutxa fundazioa

Enparan jaunak azpimarratzen digunez, *"Segmentu bakoitzarentzat erantzun berezi bat daukagu. Oraingo helburu nagusia etxebizitzak erosteko mailegu hipotekarioa da. Etxebizitza erosteak gauza mor-do bat dakartza eta horrek asko lotzen gaitu bezeroarekin".* Bizilagunen komunitateko ordainketa asko bertatik egiten da, nomina/pentsioen kobraketan beren partehartzea oso altua da (izan ere entitate delegatua baitzen CAP garai batean), kobrantzen



"Kutxan fusionatzea azkar eta ondo egin da".

sistema integrala oso erabilgarria da... %90ak kontua daukala, alegia, "kajaorrosen".

Guzti horrek burohaustek emango zizkien, baina hasiera batean bakarrik. *"AKM eta AKP-ren fusioa azkar eta ondo egin da. Bulego guztietan gestoreak jarri ditugu eta bakoitzak bere bezeroak ditu izendatuta (horrenbeste bezeroei atentzio osoa ematea da bere helburua). Ondo banatuta daukagu eta erraz eta egoki egiten dugu lan hori".*

Pixudunena Ordizian

Ordiziari dagokionez, aurrezturik dauden %52a baino gehiago etxe horretan daude. Bere zuzendaritzapekoa sukurtsal eredugarria izan da eta izaten segituko du. *"Eskeintzen dugun zerbitzua kalitatekoa da nire ustez. Eta hori daukagun ekipoagatik da. Bezeroak konfiantza handia du eta hala erantzuten du. Ordizian bere pixua dauka Kutxak: 3 sukurtsal ditugu, gainontze-*

koak bana dituztenean".

Goiko plantako lehiatilan operazio arinei erantzuten zaie eta bezeroak zerbait gestionatu nahi duenean, beheko solairuan 4 lagun dituzte eta Joxe Marirekin 5: eserita, erantzun lasaiagoa ematen zaio. Jende asko hartzen dute eta hilean zehar banatuago. Ia desagertu dira garai bateko betealdi eta "kolak": kutxatila automatikoa eta makina eguneratzailea bentaja handiak izan dira. Astelehen-astearte arratsaldetan irekita edukitzea ere zerbitzu-ahaleginen barruan koka daiteke. *"Torresol-ekoan enpresen zerbitzuak eramaten dituen gestorea dugu, horretara bakarrik jarria".*

Ordiziako enpresen bulegoa ixteak eragindako zalapartatxo ez da gertatu zaharra. Bere esanetan, *"Hori ez da Beasain/Ordizia arteko 'pikea', Gipuzkoa osoko 27-28 bulegorekin egin da, handitu eta kontzentratuta zerbitzu hobea emateagatik".*

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.
Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Ana Irastorza, Rufino Iraola,
 Mari Joxe Madariaga, Edurne
 Albizu, Izaskun Salazar, Anto-
 nio Berasategi, Jorge Rodri-
 guez, Iñaki Leturia, Aitziber
 Murua, Jon Aizpurua, Ibai-Ertz,
 Edurne Ayuso eta Aitor Arza.

**Fotokonposaketa eta maketa-
 zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 4.600 ale. 4.500 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esan-
 enen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Goierriko Gazte Asanbladen jaia Lazkaon

Beasain, Ordizia, Lazkao, Itsasondo eta Zaldibiako Gazte Asanbladak elkarturik, Igo Goierriko Gazte Asanbladen jaia ospatuko dute Lazkaon, hilaren 17 eta 18an. "Jai hau ospatzeko asmoa duela 4 bat hilabete sortu zen. Goierriko Gazte Asanbladen arteko koordinazioa falta zela eta, indarra emateko festa hau ospatzea pentsatu genuen", adierazi digute Lazkaoko Gazte Asanbladakoek. Horretaz gain, "Goierrin gazteentzako dagoen lokal falta salatzeko bide egokia iruditu zaigu jai antolatzea. Goierri 2 Gaztetxe bakarrik daude, Itsasondo eta Ordizian. LGA-k 6 urte ditu eta egoera txarrean gaude. Lokalik ez daukagu oraindik, eta horregatik egingo dugu lehen jaia Lazkaon", argitu digute. Aurrerantzean ere, horrelako jaiak egiten jarrai-

tzeko asmoa daukate, herriak txandakatuz. Lazkaotarrek argi utzi nahi izan dute, jaira hurbiltzeko konbokatoria guztiz irekia dela.

Egitarruari dagokionean, 17an, Gazte Asanbladen arteko futbol txapelketa izango da. Larunbatean, 18an, goizeko 9.30etan, futbol txapelketako finala. Ondoren herrien arteko olinpiadak, graffitia, "Antzar Gazteak" txarangarekin kalejra, eta 15.00etan bazkaria izango da Udaletxeko arkupean. Bertsolari eta txalapartariak izango dira bazkalondoren. Nahikoa jan ez duenarentzat, meriendatxo izango da. 22.30etan, berriz, kontzertua (dohainik), Nuevo Catecismo Catolico, Ostikada eta The Window Ventanas taldeekin. Egun osoan zehar eskalatzeko biak eta erakusketak irekita egongo dira.

Besteek esana

Nikolas Lekuona famatua

Nikolas Lekuona zenaren lanak ikusi zituenean "maite-mindu" egin zela aitortu berri du Adelina Moya irakasleak ordiziarra eta gerra aurreko euskal artistak aztertu dituen bere liburuaren aurkezpenean. "1979an izan zen. Ez nintzen Donostian eratu zuten erakus-keta ikustera garaiz iritsi eta Azkoitian eta Bergaran ikusi nuen, hara eramane baitzuten gero. Ordura artean, Arteta, Zuloaga eta Regoyosen lanak ezagutzen nituen, baina, jakina, Lekuonarenak ikusi nitue-nean harritu egin ninduten. Haren bidea guztiz bestelakoa zela ikusi nuen". (...) Nikolas Lekuonari eskaini dio ahaleginik handiena".

Juan Luis Zabalak,
"Egunkaria"n, 95-III-4an

"Racismo en bertso"

"(...)Egia nabarmena da gaur ez daitekeela talde marjinalen bizkarretik barrerik egin; ez horiek satirizatu eta ez satanizatu. Egia da alde honetatik kultura aldatzen ari dela. Areago, erderaz esaten den eran, formak gordetzen ditugu, eta oso modu errefinatu eta sotilenean ematen dugu kolpea marjinaluaren bizkarrean. Askotan erabiltzen dugu denetan armarik mingarriena: indiferentzia. Txirritak sanoago jokatuko zuen, seguru aski!".

Rufino Iraolak, "DV-Gure artean", 95-III-5ean



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eskutitzak

Osasuna, sendagintza herrikoia

Ez dago bi aldiz esan beharrik: katarro eta pulmoniak, arnasketa-arazoak ditugu inguruotan hotzak dakarkien gaisotasunik ohizkoenak. Zer agintzen zuen herri-jakinduriak halakoak senda-bidean jartzeko? Landare eta belarrek in egindako *enplastuak*. Baita *infusio* edo *belar-urak* edatea ere.

Katarroak sendatzeko, lekuan lekuko zenbait modu ezagutu ohi dira. Batean *garagar-ura*, azukreak gozaturik edaten zen; bestean etxeko *tximiniko hautsaren* ura eta ardo gozatua; era berean, *esne beroa eta ron* basokada bat ere ez ziren erremedio txarrak. Pulmonia, berriz, nekez sendatuko ba-

zen ere, *sendabelarra* egosi, *lar-bellarrez* garbitu eta *pulmonia-ura* edanez tratatzen zen. Izerdi-patsetan jarriko zuen ur horrek gaisoa, eta sendatzen bazen, amen. Bestela, Amen Jesus eta animaren errekomendazioa egin.

Aza-hazia eta *baratxuriaz* egindako enplastua erabiltzen zen berotasuna gutxitzeko. *Osinaz* bular eta bizkar aldeak ondo igurtziz gero katarro gutxik eusten zion bereari. Baina guztien gainetik *enplastuak*. Famili bakoitzeko birramonak asmatutakoak edo herriko petrikiloak erakutsitakoak.

Kexexo (Ordizia)

GOIERRITARRAren oharra

"Eskutitzak" sail honetan, irakurlea idazle da eta aldizkarian argitaratzeko moduko idazlanek izango dute lekua. Interesgarri izan litekeen edozerrek du kabida, nahiz ateporala izan. Idazlana ez da inoiz folio batetik gora ibili behar (gainontzean hamabostekariko beste sailen batetan jarriko genuke edo zerbait laburtzeko eskubidea izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak eta NAN zenbakia behar ditugu, baina, hala nahi balu irakurle-idazleak, ezizenez bakarrik izenpeturik ere atera genezake.

LARDIZABAL HERRI ESKOLA ZALDIBIA

Aurre-matrikula epea irekita dago mrtxoaren 14ra bitartean, arratsaldeko 3etatik 4etara. (Familiako liburua eraman).

D eredua
☎ 88 42 51

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

JAKINTZA IKASTOLA KALITATEZKO ESKOLA

- * 2 urtetik unibertsitatetara
- * Euskara gure ardatza: gelan eta kalean
- * 4 urtetik ingelera ikasten
- * Irakaslego iraunkorra

Matrikulazio epea irekia
(Martxoaren 15 arte)

Tfnoa.: 16 05 40

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker-tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.
Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa
Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 16 17 44 ORDIZIA



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO



Giro fator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



Goierrri 15 ☎ 88 17 08

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93 ORDIZIA

Intereseko Telefonoak

Gure korrespon- tsalen telefonoak

GOIERRITARRA.....889612

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika.....160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Eduene Ayuso.....160615

Lazkao:

Mari Joxe Madariaga.160282

Legorreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Jon Aldanondo886273

Iñaki Leturia.....882679

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:

Rufino Iraola884353

Zegama:

Eduene Albizu801351



Errezeta



**Elena eta Eukenek
emana
Eroski Kafetegia
Ordizia**

ARRAIN PASTELA

Arrain kongelatua eta itsaskabra haundi xamar bat egosi. Bestetik, 2 porru, 2 azenario, tipula haundi bat eta piper berde bat zartagian jarri poliki-poliki gorritzen. Ondoren, piper morroi lata bat gaineratu barazkiei eta piska batean utzi egiten. Behin hori eginda gero, arrain egosia (hezurrak

kenduta), barazkiak, 11 arraultza, 200 cl. esne gain eta 2 goilarakada tomate frijitu, ondo batitu ontzi batean. Gatza, norberaren gustora. Jarraian, moldeetan jarri (moldeak gurinaz eta irinaz igurtzi pastela ez eransteke) eta baño-marian 45 eta 60 minutu bitartean eduki, 180° tan.



Bota bertsoa



**Mikel Aranburu
Gaia: Roldan
Doinua: "Mutil koxkor
bat"**

Roldani dago aspaldi hontan
juizio bat irikia
baina kartzela ez joateko
ia badu aitzakia
Laosen zela eta ez zela
nahastu gaitu hark ia
bi astez edo egina digu
montaje hain egokia
le(he)n lapurreta egiten zuen
eta orain antzerkia. (ber)

Bizi guztian nahi aina egin
ta heldu zaio eguna
ia urte bat opor aldian
ondo ibili zaiguna
gure kontura egina dauka
berak Jesusen fortuna
eta azkenik esango dute
ez dela hain erruduna
ez luke tratatu bera izango
izan balitz euskalduna. (ber)



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

IDIAZABALen ETXEBIZITZA BIKAINAK saltzen ditugu

92 m² erabilgarri + trasteleku eta garajea

PREZIO OSO INTERESGARRIAK

Gaur egungo benetazko ordain-mailara egokiturik bait gaude



Informazioa eta salmenta:

Isabel II Etorbidea, 7. Donostia Tfnoak: 450721 - 452955

Salerosketak

□ Alfa Romeoren aleaziozko 5 llanta, 5 1/2 5 x 14 neurrikoak salgai. 730326.

□ Errepideko txirrindua saltzen da, egoera onean. 160490.

□ Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

□ "Temas clave de Salvat" delako bilduma osatu nahi nuke. Zenbait ale erosiko nituzke edo beste zerbaiten trukean hartuko. Vega, Ordizia, 887188.

Lana

□ Etxekoandre beasaindarraren prest, etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko, bulegoak garbitzeko edo jate-txean lan egiteko. M^a Jesus, 887097.

Etxebizitzak

□ Donostiako Grosen lagun bata behar da pisua osatzeko. Gauez deitu 291110 tfnora (Jontxu).

□ Donostiako Alde Zaharrean pisu bat salgai. 60m², garaia, leihoak kanpoalde-
ra. 427804, arratsaldez.

□ Lazkaon pisu bat salgai: 3 logela, egongela, sukaldea, komona eta trastelekua. 6. solairua eta eguzkitsua. Tfnoa.: 881438.

ANTZERKIA

♣ Beasain:

Martxoak 9, Corsario taldearen 'Asalto a una ciudad' antzezlanaren Usurbe Antzokian, 20.00etan. (Gaztelaraz).

BERTSOAK

✓ Beasain:

Martxoak 11, Arrano Elkartean bertso-afaria, 20,30etan, "I. afalosteko bertso saioak"-en barruan, Igor Eguren, Haritz Zerberio, Xabier Narbarte eta Alaitz Alustiza.

✓ Ordizia:

Martxoak 18, Korrikaren aldeko bertso jaialdia Herri Antzokian, 22.30etan. Bertsolariak: Egaña, S. Lizaso, Peñagarikano, Murua, Mendizabal eta Sorozabal.

MUSIKA

✓ Beasain:

Martxoak 10, Slauko bakarlarri bosniarraren kontzertu-errezitaldia, Aterpe Tabernan 23.00etan.

Martxoak 23, Jon eta Aitor Sarasua bertsolariak, Juan Luis Lekunberririk pianoan lagunduta,

'Fauna txiki bat, bertso berritan' ikuskizua eskainiko dute Usurbe Antzokian, 20.00etan. Sarrera 500 pezeta.

Martxoak 18, L.A. Elvis beasaindarrarekin kontzertu-errezitaldia Aterpe Tabernan 23.00etan.

✓ Ordizia:

Martxoak 19, Beti Argi Musika Bandaren kontzertua Plaza Nagusian, eguerdiko ordubatean.

ZINEA



✓ Beasain:

Martxoak 14, 'Haur lehoia' (euskaraz) Usurbe Antzokian.

Zine Kluba:

Martxoak 16, 'Ladybird, ladybird' (Ken

Loach, Britainia Handia 1994), Usurbe Antzokian 21.00etan.

Ostirala 10, "Junior", 10.15.

Larunbata 11, "Junior", 5-7,30-10,15.

Igandea 12, "Entrevista con el vampiro", 7.30-10.15

Astlehena 13, "Entrevista con el vampiro", 7.30-10.15.

✓ Ordizia:

Ostirala 10, "La máscara", 10,15.

Larunbata 11, "La máscara", 7,30-10,15.

Igandea 26, "Un golpe del destino", 4,45. "La máscara", 7,30-10,15.

Astlehena 27, "La máscara", 7,30.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

✓ Idiazabal:

Martxoak 17, Felipe Uriarteren "Alaska" lana Kultur Etxean 8etan.

✓ Ordizia:

Martxoak 15, Amerindiaren barruan, 'Chiapas: Testimonio del Ejido Morelia' eta 'Kraho: Los

Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak, Liburuskak, Packaging, Buzoiaketak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak, Jaietako Zapiak, Boligrafoak, Pins, Piskailuak, ...e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta Enpresak, Seinaleztapena, Argizkoak eta Neonezkoak.

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

Creativos

hijos de la tierra',
19.30etan Barrenan.

Martxoak 22, Amerindiaren barruan, 'Venetzuela: La noche Pume', 19.30etan.

HITZALDIK

✓ Lazkao:

Martxoak 15, 'Euskal Herriaren Historiaurrea: ikuspegi historikoa eta kulturala' gaia jorratuko dute Emeterio Sorazu eta Joxean Mujikak, diapositibez lagundurik. Udaletxeko Areto Nagusian, 19.30etan.

IKASTAROK

✓ Beasain:

Martxoak 20, argazkigintza (bigarren maila) ikastaroa. Iraupena 20 ordukoa (gazteleraz). Klase egunak astelehen eta asteazkenetan, 19.00etatik 21.00etara. Praktika eta laborategia larunbat goizetan. Matrikula 3.000 pezeta.


ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Martxoaren 12ra bitartean, Irrati bidezko komunikazioaren historiari buruzko erakusketa

Usurbe Antzokiko Erakusketa- Aretoan.

Martxoaren 12ra, Asmube eta HHIn egindako eskulanen erakusketa Udaletxeko Batzarre-Aretoan.



Martxoaren 17ra bitartean, Amaia Kasasolaren erakusketa Aterpe Tabernan.

Martxoaren 17tik 26ra, Euskal Herriko musika-tresna zaharren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Martxoaren 18tik apirilaren 7ra bitartean, Esther Ibeasen erakusketa Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Martxoaren 10era bitartean, Victoria Montolivoren pintura erakusketa Barrena Kultur Etxean.

Martxoaren 17tik 30era, Jose Mari Telleria eta Lake Oiarbideren argazki erakusketa Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 12, Altzagarate-Baliarrain ibilaldia.

Martxoak 19, Uarraia-Gañetara (1.346 m.) mendi-irteera.

Ordiziako mendizaleak:

Martxoak 12, Frantse-rrera-Aldaon-Amezketara.

Martxoak 19, Ermua-Kanpazar.

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Martxoak 11, Aralarko Ondarreko Zulora.

Idiazabalgo mendizaleak:

Martxoak 19, Kanpezu-Izkiz.

GOARDIAKO BOTIKAK

Martxoak 10: Azpili-kueta; **11-12-13**: Jauregi; **14**: Laurnaga; **15**: Cuesta; **16**: Arriola; **17-18-19**: Urbizu; **20**: Atorrasagasti; **21**: Azpilikueta; **22**: Jauregi; **23**: Laurnaga.

Ordiziako azoka



Babarrun beltza behera

Asteazkeneko azokan ere azaldu ziren udaberriko zizak; 160 gramo. Kiloa 17.000 pezetan zegoen. Arkumea (180 guztira) oso ondo saldu zen, 450ean kilo; untzia 220 pezetan eta antxumeak (5), 440ean. Joan zen asteko azokan babarrun beltzak behera egin zuen, 600-1.000 pezeta bitartean eskatu zuten saltzaileek.

Bertoko produktuetan ez zen aldaketa handirik izan. Landareek zertxobait itxaron beharko dute, izandako euri-teak direla eta, lurra oso bustia baitago. **Ganpoko produktuetan** batzuk gora eta besteak gora egin zuten: marubiak (300-350), ilarrak (375) eta patata berria (160) jaitsi egin ziren; pina (250-300), piper berdeak (300-350) eta tomateak (300-350) berriz, gora.

Arrainetan, antxoak 790ean saldu ziren; itsasoi-larra 1.360; txitxarroa 590-750; txipiroiak 1.460; sardinak 520.

Ana Irastorza

-EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

8-GOIERRITARRA

Morroi geure etxean

Aztoratu samarrik gabiltza kanpoko jendeak inguratzeko ahalegi-nean: museoa, denda eta ez dakit beste zenbat gauza Zerainen; nekazalturismoa... "Goieki" berak ere argitaratu du orriren bat gure herrietako ikusgaiak ezagutarazteko.

Oso ondo; bizi irauteko ahalegi-nari oztopoak jartzen hastea ez litzateke bidezkoa izango.

Izan berria naiz, turismoa, besterik ezeko bizibide bihurtu duen herri eder batean. Alderik alde pasatu dugu Andaluzia; hango harri eta monumentu askoren gainean jarri ditugu begiak. Beste herri batean izan gara. Andaluzia --andaluziarrak, alegia-- ezagutu? Duda-koa oso; gure neska-mutilei, disko-tekara joan eta ez zieten ba euskal musika ipintzen!

Eta ez da txarra andaluziarrek nondik bizia izatea. Baina ez dezagula gure bizimodua kanpokoek nahi duten hartara makurtu. Egia da ez ditugula, Andaluzian bezala, iragarkiak ingelesez jarri beharko, baina donostiar turistek zer ikusi nahi, huraxe jarri beharra ere triste samarra litzateke... guretzat. Turistak? Etor daitezela behar dutelako, ez nahi dutelako.

✍ Antonio Berasategi

Mendi istripuak direla eta, zer iritzi duzu?



Joxe Mari Esnal
73 urte, erretiratu
legorretarra

Esperientzi gutxi daukatenak dira, arriskua ebitatu egin behar da. Erreparo gutxi izaten dute eta gero eguraldi txarrak eta arriskuak konturatu gabe etortzen dira. Mendi errezak ez dira aintzat hartzen.



Joxe Lasa
35 urte, funtzionarioa
legorretarra

Beldurra ematen dit egoera limite horietan mendian ibiltzeak, baina norberak hartu behar du erantzunkizuna. Hildako gehienak oso gazteak dira eta adin horrekin esperientzia izatea zaila da. Ibiltzen den jende kopurua ikusita istripu gutxi izaten da.



Xabi Gonzalez
16 urte, ikaslea
ordiziarra

Mendizaleak kontu gehiagorekin ibili beharko lirateke, batez ere neguan. Elurra oso arriskutsua da eta mendia ezagutzen ez bada orduan eta gehiago. Berdin da Pirineotan edo inguruko mendietan.

Bitxikeria

Ormaiztegiko zubi zaharra ez da Eiffelena

GOIERRITARRAren 16.ean esan genuen (91ko udan): askok uste zuten eta oraindik usteko dute "Ormaiztegiko" tren biaduktoa Eiffel arkitektu handiak egina zela. Bada ez. Eiffel estiloduna bada ere, Lavalley izeneko ingeniari frantses ospetsuaren lana da. Lavalleyk "M.M. Ernest Gouin et Cie" enpresan lan egiten zuen eta hasieran Olazti-Beasain tramoa bertako kontratisten eskuetan utzi bazen ere, epearen barruan amaituko ez zen beldurrez, azkenean kontratista frantses hauen eskuetan utzi zen.


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



Urdaneta

ESKOLA PUBLIKOA

"Eskola euskaldun, plural
eta integratzailea"

Metodologia aktiboa erre-
formaren orientabieetan
oinarritua.

* Amara-Berriko proiektuan oinarritua.

ETOR ZAITEZ EZAGUTZERA!

Matrikula epea: martxoak 15

☎ 88 27 80 ORDIZIA





Emeterio Sorazu
(Zaldibiako erretorea)

“Bakoitzak du bere zeregina eta denek denentzat lan egiten dute, erlama edo erle erregina buru dutelarik”

Behar bada pertsonak erleekin konparatzea ausartasun haundia izan daiteke. Baina ez da hori nire asmoa. Erleen bizitza pixkabat ezagutuaz, gizakiok beraien sentiberatasunaz gehiago jatzeta baizik. Erleen bizitzatik lau alderdi hauek balaratu nahi ditut: erlea eta bere izakera; erlategia eta elkarte lana; erlama eta erregina; erleen zenbait joera harrigarri.

Erleak

Intsektuen sailean, beren famili osoaz arduratzen dira erleak. Neurritz, 15 mm. inguruko gorputz iletsua dute eta buruan, aho-aparatu zupatzailer bat, bi begi konposatu eta antena sentikorrak dituzte eta bertan, 6.000 usainezko plaka. Bular azpian, sei hanka eta lau hego: aurreko bi hankak beren antenak garbitzeko erabiltzen dituzte; atzeko bi hanketan, ile txikiekin biltzen duten polena jasotzen dute eta tartekoekin, bi zakutxotatik polena ateratzen dute. Hiru lanbide berezi dituzte: egunero hainbat joan-etorrietan, udaberri sarreran hasita, lorategietatik lorautsa eta eztigaia ekarri; erlategian eztia eta polena landu eta erlategiko senideak elikatu, zaindu. Ikusgarria da beraien arteko komunikazioa, janaria aurkitu ahal izateko senideei egiten dizkietan dantzekin. Eguzkiarekin gidatzen dira.

Erlategia

Izen ugari ematen dizkiogu: erlategi, erlsaski, erlauntza, erlatoki, erletxe. Elkarte bizitza egiten duten eztiz eta argizariz eginiko gaztelu zoragarria da. Bakoitzean 30.000 erle bizi izan dira. Bakoitzak du bere zeregina eta denek denentzat lan egiten dute, erlama edo erle erregina buru dutelarik. Eginkizun ezberdinak dituzte: **erle biltzaileak**, 6 edo 8 aste irauten dute erlauta bil-

Erleak eta gizakion gurasotza

tzen, hegoak hondatu arte; **langileak**, eztia eta argizaria barnean egiten dute; **elika-tzaileak**, senide txikiei janaria ematen dietenak; **epeltzaileak**, barne giroa epeltzen dutenak; badira, beste bakar batzuek, **alperrak** lanari ihes egiten diotenak eta **lapurrak** gauean eztia lapurtzen dutenak.

Barneko gelategia oso berezia da; goitik hasita, panelak daude zintzilika; hauen bi aldeetan, gela txiki berdinak dituzte eta erreginarenak zerbait haundiagoak dira. Gelatxo hauetan gauza misterioitsu asko gertatzen da; erlakumaldia, eztia, argizaria, polena, eztigaia, elkar-hurupatzea...

Erregina

Erleen erregina, gorputzez zerbait haundiagoa da eta erlategi bakoitzean bakarra izan ohi da. Bere hanketan ez du iletxo eta boltsarik eta bularra dute zati haundiena. Erle emea emankorra da; bere helburu bakarra arrautzak egitea da eta erlatokitik ez da inoiz ateratzen. Beste erle guztiak antzuak dira. Ernaltzeko, berak aukeratzen du erle langile bat; elkartu aurretik, ezkontz-hegaldi berezia egin ohi dute, elkartu ondoren, berriz, erle-aita, hil egiten da. Erreginak edo erle -amak egun batean 4 edo 5.000 arraultza egiten ditu gelatxo horietan jarriaz. Erle-amak lauzpabost urteko bizia dauka. Bera hiltzean, erleek beste erregin bat sortzen dute berehala, ‘jalea real’ izeneko janariarekin dieta berezia emanaz. Erlakumaketan, beste erle zerbitzariak etengabe elikatzen dute eztiz eta urez.

Beste erregin bat sortuko baltz, erle talde batekin ihes egin behar izaten du, edo hil egiten dute.

Zenbait jarrera berezi:

Joan-etorrietarako eguzkia dute gidari, kolore gorriarekin itsutu egiten dira. Erle lapurrak, bigarrenez, okerrean harrrapatzen badituzte, hil eta kanpora botatzen dituzte. Eguraldiari inork baino lehenago antzematen diote, nahiz euria, nahiz izotza aurrikusteko. Lorauts bila urrutira joanez gero, haizeak ez urrutiratzeko, lurretik aurreko lau hankartean harritxo bat hartzen dute, beren pixua halakoa edo handiagoa, erletegira zuzenago irixteko. Ondoren, erlategi aurrean lurrera botatzen dute. Erlautsa ekartzen duten erle langileei hegoak hondatzen zaizkienean, nekearen nekez, hil egiten dira, bidean edo beraien etxe atarian, beraien lanaren testigu geldituz. Negu gogorra datorrela antzematean, erlategiaren zirrikutu guztiak argizariz estaltzen dituzte, barneko beroa mantentzeko. Eguzkiarekin bizi dute beren denbora, eguzkia atera ezean, ez dira inoiz ateratzen. Beraien etxea nonnahitik aurkitzen dute, galtzeko arriskurik gabe...

Erleen joera guzti hauek irakurtzeak, gizakioi hainbat galdera sorrarazten dizkigu: nolakoa da gure sozaltasuna? Zenbateraino gara gizakiok familigileak? Zenbateraino hartzen dugu bizitza, bakoitzak gure lana egoki egin ahal izateko? Naturak ematen dizkigun hondasunak, zenbateraino gozatzen edo eztitzen ditugu elkarren onerako? Zenbateraino kezkatzen gaitu gure arteko ezberdintasunak, batzuen aberastasunak eta hainbaten miseriak? Erleak bezalako gurasotza biziko bagenu, zer zeru ederra litekeen gure bizimodua!...

Era naturalean egindako ogiak Zegamako Okindegian

Tolosaldeko Elisabet Nosellas eta Jokin Sarasola senar-emazteei 20 urte itxita egondako okindegia hartu, berreskuratu eta herriari zerbitzu bat eskeintzea okurritu zitzaien. Iazko oporretan ireki zuten, aurretik ofizio zail hori ikasi eta gero. Lehen hilabeteetan lehengo okindegiko zen Joxe Izagirrek irakatsi zien, izan ere bere 68 urterekin izugarritako "eskua" baitauka. Asmoetan zeukaten bizitzeko adina ateratzea, kalitatea ematea, usadiozko tradizioak eta herriko produktuak bultzatzea.

Oso modan dauden ogi industrialak eta "butikeak" oso desberdinak dira hauenarengandik: "Legami zaharrarekin aritzen gara (aurreko eguneko gorde, goiz-arratsaldetan berritu...), ez diogu inolako aditiborik edota kimikorik jartzen". Ez da gutxi hori gaur egun. "Jendeak uste du gainera horrela egiten direla ogi guztiak. 'Zuena naturala bada, besteak nola egiten dira?', galdetzen dute", Elisabetek dionez.

Ogi goxatu behar

Irin naturala lortzea prolematikoa gertatzen zaie, gehienak aditiboekin etortzen baitira, eta horiekin ezin da eskuz lan egin. Idiazabalgo errotatik ekartzen hasi ziren irin integrala, baina orain Nafarroatik dakarte. Ogi egiteak gorabehera asko ditu. "Guk ez dugu sekula ogia berdin ateratzen egun batetik bestera, eguraldiaren gorabeherak, temperaturari erreparatu beharra; labea ere egurrezkoa dugu, askok uste ez badute ere, eta hegoaizea bada,



adib., tiroari ez dio uzten botatzen. Ez zara aspertzen eta lorik ere ezin da egin gau osoan". Alegia, beren buruhausteak dituztela ogia era naturalean egin nahi izateagatik.

Hasi eta segituan oztopo ugari izan badituzte ere (gizona gaixotu, e.a.) eta "lehertu" egin ziren pixka bat; makina bat ere ekarri zuten, baina jendeak ez zuen gustokoegia, dena aldatzen baitzen makinatuta eta azkenean bere-berearen eskuz egindakora bueltatu ziren. Eskuz aldatuz gero, ogia ere aldatu egiten da. "Halakoa gertatzean, ezagutzen gaituzten herrietan konfidantza-marjen bat eman zaigu". Denborarekin trukoak ikasten dira. "Ogi jaio berri bat bezala goxatu behar da: beroa, goxotasuna eman behar zaio, traputan bildu...". Maitasun asko eman. Beste okin batzuk orduerdian egiten duten produkzioa ateratzeko gau osoa behar dute Zegamakoek.

Kopuruetan ez baino kalitatean konpetitu nahi dute eta Zegaman ez ezik inguruotan zabaltzen dute: Tolosa, Ibarra, Belauntza, Txarama, Ordizia, Bea-

sain, Idiazabal eta Seguran. Oso gogorra suertatu zaie inertziak haustea, Zegaman eta bestetan ohiturik baitzeuden herriak ogi batetara. Baina oso ondo onartu zaie eta gaitz erdi. Zeraingo Proiektukoekin batera bilerak ere eginak dira eta aurrerantzerako asmoak ere badituzte.

Bitartean, koinatuaren laguntza izan duen bikoteak besterik ez du nahi, herriko langileak hartzea: "Bizitzeko atera, eta ogi gehiago egin behar badira kubritzen ez dugulako, bada beste lanpostu batzuk sortuko ditugu", diote. Sortzea hainbeste kostatzen den ogiak bere etekina uzten du, aidanez. "Jende batek esan zigun, eskuz egindako produktu hau garestiago jarri beharko zela. Baina bizitzeko ematen badu, kalitatezko gauzak elite bakar batzuentzat izan behar al dira? Langileei zer eman behar zaie, sobrak?" Beraiek, okinek pisuarekin estipulatuta daukatena, prezio berean saltzen dute. Txalogarria da eta zorte ona opa diegu.

 Mikel Aramendi

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN

**TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA**

B i o K , c . b .

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

Ba al dakizu...?

GOIERRITARREN

KONTUAK, iazko kontumatea eta aurtengo aurrekontua luzatu diegu "Goieki" eta Goierriko udal guztiei, azken zenbakian esan bezala. Hamabostekaria guztiz positibotzat jotzen da Goierri osoan eta kanpoan, beste gauzen artean txosten luzean diogunez. Diru kontutan aipatu iaz 13,7 milioi inguruko diru-irteerak izan genituela (pertsonalean 6,5; inprentan 4,7; bulegoan 1,5; banaketan e.a., ia milioia). 12,8 milioiko diru-sarrerak izan genituen: 5,4 milioi jaso ziren instituzioetatik (3 udaletatik, 1,5 Jaurlaritzatik eta Diputaziotik 1,1 milioi) eta 7,5 publizitatetik. 885.000ko defizita geratu zitzaigun.

95rako behin behineko aurrekontua eta eskari berria ere egin diegu "Goieki" eta udalei. Diru irteerak ia 16 milioikoak izango dira. Diru sarreretan 6,6 milioi espero ditugu instituzioetatik (4 udaletatik), iazko laguntzak emanez gero Diputazio eta Jaurlaritzak. Iazko publizitate berdintsua lortuta ere (7,7 milioi, nahiko zaila krisia dela eta) 1,6 milioieko defizita geratuko litzazuke. Istituzioen eta enpresa-merkatarien laguntzak igo beharko dute: GOIERRITARREN debaldekoa da eta Goierri osoari erantzuten dio, aurtan 5.800 aleetara iritsiko gara gainera eta guztia beharrezko izango gara langile profesional/militanteok. Kontuak garbi eta bakoitzari berea.

RUANDAN MISIOLARI

dago Olaberriko Rosa Mari Zubiarrain, gerra baretu zenetik. Gerra hasi aurretik ere hantxe zen (ikus 46. GOIERRITARREN). Euskadi Irratiari adierazi



dionez, "Hutu eta tutsiek gorrotoa barruan eramango dute, kanpora ez baitute agertzen gehiegi eguneroko bizitzan. Bi etniak nahasian bizi dira. Nik uste dut oso barruan badutela gurasoek transmititutako zerbait. Horrez gain, nik benetako errudun agintariak jotzen ditut. Jende xehea ez litzateke horrelako zerbait egiten hasiko, baizik eta agintariak bultzatutako ekintza izan zen gerra. Ondoriorik latzenak emakumeetan ikusten dira. Beldurgarritzko gauzak kontatzen dizkigute, bortxaketa asko izan eta haurdun gelditu dira. Hospitalean, haurdun gelditutako emakume batek esan digunez, gutxienez 40 gizonen bortxatu zuten. Desezindako zegoen".

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

amaitu dira eta baita zenbaketak egin ere. Goierri, ELA izan da nagusi, % 45,88 lortu baitu; LABek % 25,10; CCOOK % 18,04; UGTek % 2,35; eta besteek % 8,62.



GOIERRIKO HERRIEN

EKINTZA eskualdeko industriari begira egon da azken 10 urteotan, Goierri Eskola eta Ikaslan-ekin batera. Kurtso hasieran Zegamako Carlos Ormazabalek hartu du etorkizuna planteatzen ari den fundazioaren zuzendaritza, Juan Manuel Barandiaranen orde, "Goieki"ren zuzendaritzaz enkargatza pasatuta baita ataundarra. Entitatearen etorkizuna sendoa dela dirudi: enpresak batzen zaizkie, plan estrategikoa martxan daukate, e.a. Ormazabalen ustez, ordea, zerbitzu integrala eskaini eta koordinazio hobea eman behar daosatzen duten entitateen artean, horrela jarraituko dute Goierri aurrera ateratzen. Goieki eta Goierriren artean jende batek daukan nahasmena ere aipatu du bitxikeri moduan.



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



□ MIREN ETXEZARRETA ordiziar Ekonomia irakaslea (Katalunian bizi dena), EHNEK antolatuta, otsailean Gaztelun izandako Emakumezko Baserritarren Jardunaldietan parte hartu zuen. Nekazal zonaldeetarako garapenari buruzko hitzaldia eskaini zuen, eta eztabaiarako zenbait ideia jarri zituen mahai gainean: *"Gizarteak hausnarketa sendoa egin behar du nekazal zonaldeak nola izango diren erabakitzeko"*. Bere esanetan, *"etorkizuneko ereduak pentsatzeko gizarte osoaren partehartzea ezinbestekoa da, nekazal guneetako garapena gizarte osoaren aukera baita. Plataforma erruralen edo aliantza politikoaren aldekoa naiz"*.

□ OBRA-LANAK GOIERRIOSOAN. Obrak beti dira notiziaz gurean eta hamaika egin dira eta egiten ari dira azkenaldian: **Zegaman** San Adriango "Baratzondo" aterpea laister zabalduko da (180 m²tatik 255ra), 20 milioiko aurrekontua onartu du Aldundiak; Otzaurteko errepidea lubiziek eraman dutela eta, itxita dagoela,

lanean aritu dira bidea kondizioetan jartzeko. **Beasainen** 150 etxebizitza egitekotan dira Dolarearen inguruan, Jauregia Udalerraren esku geratuko da; aparkamendu gisa oso erabilia den Gipuzkoa edo Eskisabel Plazan 48 etxebizitza dihoaz, Arau Subsidiarioetan aurrikusten denez; Erauskin plazako birmoldaketa-lanak hasiak dira, trafikoa arintzeko eta aparkalekuak zabaltzeko asmoz.



Lazkaon hilak 3an egin zen Jm. Barandiaran kiroldegia 2. inauguraketa ofiziala, baina HBko zinegotziak ez ziren bertaratu. Berritze eta birmoldatze lanak ia 18 milioiko aurrekontua izan dute; igerilekua eta pelotalekua egokitze eta berritzeaz aparte lanak ere egin dira, baina HBkoen ustez, *"polikiroldegiko zenbait obretan xahutu diren 100 milioietatik parte on bat egin diren txapuzak tapatzeko erabili dira"*. **Ormaiztegiko zubi berria** oso aurreratua dago eta bi muturretan lotzea besterik ez da falta.

□ LIZARRUSTIKO KAMIÑEROEN ETXEA berritzen hasi da Foru Aldundia. Aralarko Parke Naturaleko aterpetxe bezala era-



biliko da. 60 miloi pezetako aurrekontua duen proiektuak euskal estiloko etxearen fatxada errespetatzekotan da. Argazkia: Joxe Begiristain.

□ GABIRIAKO ES-KOLA ere eraberritzeko asmoa du bertako Udalak, Gabino Murrak informatzen digunez. Laster hasiko dira gaur egun eskola, Kultur-Etxea, liburutegia eta beste dituen eraikuntza horretako lanak. Paretak garbituko dituzte nolako harria duen ikusteko lehenik. Harri ona eta egokia balu, utzi egingo litzaizkioke, bai eta kantoi-harriak ere. Lanak ziur aski datorren hilean hasiko dira eta gutxi gorabeherako aurrekontua 4 milioi ingurukoa da.

□ GOIENIZ ZINE-KLUBAK arrakastatsu hasi du bere emandien zikloa. Jende mordo bat agertu zen bere lehenengora eta bazkide de-xente bildu dituztela jakin dugu. Dena den, datu zehatzagoak hurrengo zenbakian emango dizkizuegu. Goierriko zine-klubaren piztueraz pozten gara eta animoak eman nahi dizkiegu Donostiara joan gabe apenas pelikula on-onik ikusi ezin genuenok.

BEASAIN
Loinazpe

Martxoaren 14rarte matrikula zabalik
Loinazpe Ikastetxe Publikoan

Igartza Oleta z/g
BEASAIN

Tfnoa.: 88 26 44

PUNTAKO PIANOJOLEA ETA PUNTAKO MUSIKARIEN LAGUNTZAILEA Karlos Gimenez: "Musikarekin hegan egiten dut ahal badut"

Behatz luze eta finak ditu, buru argia eta konbertsazio ederra. Ezagunegia ez, baina bai preziatua, maila handikoa da goierritar musiko hau. Intelktualkeriak ezeztatuz, gizon kulto agertu zaigu. Ezinezkoa zaigu esandako guztiak papereratzea, baina tira, eskergarria da bere gusto ona eta bizitzan zehar egin duen lana eta horri errebasoa eman nahi izan diogu.



"Gozada bat da konposatzea musiko onak dituzunean, adibidez Beasaingoak"

39 urte ditu eta Ordizian bizi da ez-kondurik, 3 seme- alabekin. Argentinan jaio zen guraso valentziarretik; txikia zela etorri ziren Beasaingo CA-Feko kargudunen etxeetara eta bertan bota zuen haurtzaro eta gaztaroa, Gastesitarrak, Elosegitarrak, Pello Sarriegi... lagun zituela. Bere bi anaiak hasi ziren kitarra jotzen eta 1965 inguruan "Los Ches" musika taldea sortu zuten. Magnetofoia, piano gorriz pintatua eta diskotekatxo bat zituen grabazioak egin eta orduak sartzen zituen etxetik atera gabe. Musika giroan hazi zen eta bertako Bandako Isidoro Alonso zuzendariarekin solfeoa ikasi, bateria, kitarra, pianoa, saxoa eta zer ez ote du jo geroztik? Talde haren material-ondarrekin, Institutuan piper egin eta kitarrekin entsaiatzen zutela gogoratzen du: Javier de Andres, Juanra Elozegi, Jabier Zurutuza, Juantxo eta Ina Gastesirekin "Gara" osatu zuten. "Ez dok hamairu"ren garaia ziren, Lertxundi-rekin ere topatu ziren behin. "Enbor" eta dantzari taldeekin batera "Goierrri" elkarte artistikoa egiten saiatu ziren.

Hasierak, Oskorri, Imanol...

Geroxeago ("68a" atzeraturik iritsi zen hona) eta Beasaingo koadrila gorritik gertu ibili zen. Magisteritza ikasten hasi eta utzi eta Valentziara jo zuen

musika ikasketak sakontzera. Familia han zeukan eta kontserbatoriora. Hainbeste musika entzuteaz (batipat sinfonikoa eta frantziar inpresionismoa) "zintzilik" geratua zen gainera. Asko ikasi eta oso ondo pasa zuen. Bartzelonan aurkitu zuen Salbatoreko Ane Urkiola eta hona etorrita ezkondu ziren. Hemen "Oskorri"n sartu zen, Santi anaia taldean baitzegoen; urte t'erdi inguru jardun zuen. "Mosen Bernat Etxepare" diskoa eginda, "Nire lehen diskoa zen eta pentsatzen nuen guztia sartu nahi izatea esajeratu samarra zen. Ez zen batere gaizki egon, baina gaurko izpiritu kritikotik diot, gehiago neurtu behar nuen". Gazte gartsu guztiek pagatzen duten "nobatada" dela deritzo.

Imanol kantariarekin hasi zen ondoren (trantsizio aroan), eta gaur arte. Euforia, ilusio eta kantaldien garaia zen, gauzak lasaigo egiteko gogoaz zegoen, oso dimentsio emotibokoa zen dena... Orduan hasi zen talde instrumental bat eramaten benetan. Imanolen laguntzaileek "Klabin Komik" izena hartu zuten; elkarrekin bizi eta musika egiten hasi ziren, konpenetrazio latza lortuz, "Jo ezan" diska lekuko. Hain talde elektrikoa bertan behera utzi eta

Imanolekin jarraitu zuen. Beasaingo akademikoekin (Pello Irizar, Ane Erquin eta Arantxa Gastesirekin) Bandako zuzendariari agur omenaldia eskeini ziotela gogoratzen du eta ondo pasatu izana musika konposatzen. "Izan ere gozada bat da konposatzea musiko onak dituzunean; gustora egiten dituzu gauza berriak". Musika klaseak ere eman zizkien Irizar, Fosfo, eta txarangako koadrila horri. Bai eta gerora harmonia irakatsi umeei ere; ez zuen askorik espero baina desengainatu zen. Osagarria zela eta ikasteko agindu zietela esanez etortzen bide ziren. "Umeei ez bazaie interesatzen, ez dago zer eginik. Zentzua hartu behar diote. Maisuarengandik ikasi beharko luke ikasleak, errenazimenduan bezala"

Gauzak neurtzearen artea

Halere, ez da musika irakaskuntzan geratu. "Musika munduan segitzen badut, niretzat une gorena zerbait okurritzen zaidanean delako da. Bizitzako beste arlotan bezala, gauzei aterabide aurkitzen diotuzunean asetzen zara. Idea guztiz errealizatzen ez baduzu ere, haurdun bezala geratzea da: gauzak dituzu botatzeko, ideak sobran... Ho-

rrek asko balio du". Gerora ofizioa eskuratu, eskua hartu zuen. Talde instrumentalekin lan egiteak artesianarekin zer ikusia duelakoan dago, soinu-nahasketak koloreen nahasketekin, e.a. "Gauzen neurria da artea niretzako, materiala ezagutzen duzu, bere xehetasunak... Neurriak norberak jartzen ditu eta gauzak ondo neurtzen dituen oso artista ona da".

Imanol, Pascal Gaigne eta Jean Louisekin eratutako taldearekin "Iratze okre geldiak" grabatu ondoren Eki Alemaniatic jira bat egin zuten. Askotan gogoratzen du hura (Oskorrirekin ere izana zen, baina RFAn). "Erroman-tzeak" disko bikoitza burutu zuten honetaratuta. Kuestio instrumentalaz arduratu zen eta bere lanik politenetakoa, Karlosen ustez. "Nik Imanolentzat lan egin ohi dut, baina bat hegan jartzen da ahal duenean. Edozeren gaintetik, ardurak errespetatzen ditut eta norbaitena denean produktua zuzendari-tza, nik ezin ditut nire gauzak inposatu. Horrek ez du esan nahi kreatiboa izan ez daitekeenik edo hegoak moztan zaizkizunik. Gero eta konpenetratuago egon, orduan eta gauza gehiago sartzen dituzu, muga gutxiago".

Kantikoak nahiago kantak baino

Talde-formazioz aldatu badu ere, Imanolengandik ez da apartatu. "Mea kulparik ez" etorri zen, jazz-kutsukoa. Kritikoa da: "Zerbait entzuteko irratian, bateria egon behar duela ematen du. Bateria hor dago beti eta gehiegizkoa da. Luis Cobos bera...". Musika konposatzen laguntzeko ordenadoreak, tokatak baditu, baina irratia ez du entzuten. Nahiko ikasketa egin zuela eta 80etan makina bat arreglu egin ditu beste talde eta kantariantzat. Itoitzekin "Ezekiel", "Erreportariak" eta "27 ordu" filmetako banda sonoroak, Iñaki Eizmendirekin, "21 Japonasas", Antton Valverde... "Beti uste izan dut Valverde oso konpositore originala dena, segitun nabaritzen zaio nondik datorren; txoratu egiten nau eta 'Urte giroak ene begietan' oso lan polita izan zen". (Orduan ezagutu zituen errumaniar eta polondar batzu eta soka-boskotea osatu zuten, gaur arte ezin hobeto



"Bilatzen dudana jendea geratu dadila entzuteko".

konpontzen dira). Anttonekin batera hasi zen bere kontura gauza serioagoak egiten. Ondoren Gabriel Celayaren "Erreleboa"n hartu zuen parte zuzenago. Alfonsina Storniren diska eta ETBko "Hau da A.U." ("ganberroa") etorri ziren gero. ETBko esperientzia batzuk oso aberasgarritzat dauzka. "Zailena, ordea, pertsonen giza duintasunari kaltetzen ez dion espazio telebisibo bat aurkitzea da. ETBkoa boom bat izan zen, baina ez da lan gehiegi izan musikoentzat".

"Musikarekin aterabideak aurkitzean asetzen zara"

Leterekin ere lan egin du geroztik, jiran eta bi diskoetan. Ondorio bikainak atera dira kantu zahar eta berrietatik. Azken lana, Imanolekin batera, "Barne Kanta" (S.Juan de la Cruz ospetsuarena): "Hain delikatu izatean, batzuetan zuhurrak izan gara; gaurko mundurako gauza sakonegiak ere badaude hor eta diskoa entzuteko gelditu

egin behar zara. Nik horixe bilatzen dut, jendea gelditu dadila musika entzuteko". Kontsumitzeko beste produktu bat egin nahi ez izatean, lizentzia antikomertzialak hartu dituzte. Musika akustikoaren zaleagoa da, nahiz kanta arinak ere egin: kantiko bat gustokoa goa duela, alegia. Beretik gehiago jarri du azken horretan.

Bere-bere diskoa laister

Bere ibilbidea ez dauka saltzeko, baina denetik dago: "Beste zenbait gauzen artean lan asko egin beharra izan dudalako. Hori ona izan liteke, baina beti besterentzat egitea ez hain ona eta nik besterentzat egin dut asko. Horrek piskat 'mutilatu' egiten zaitu. Baina ezingo gara amargatu eta orain saiatzen naiz lana aukeratzen saiatzen naiz ahal bada, zaila badago ere". Andreak lan egiten du eta gaitzerdi.

Denbora librean neurtuta eduki izan du. Gogokoen dituen konposizioak, bere-berea den "poesia" utzi eta "prosa" jardun beharra dauka. "Musika komertzialagoari partidu asko atera diezaiokezu, ondo egin, ikasi... Hori ez, ondakinak ere ez ditut onartzen, horrek erre egiten zaitu. Ni ez naiz nekatzen musika egitetik. Lehortetik atera naiz eta (gauza zahar batzuk alboratu eta beste batzuk erabiliko ditut) gogo handiak ditut disko propial bat egiteko. Gustora arituko diren musikarien laguntza dut beharrezkoena, produkziórako dirua nonbaitetik aterako dugu. Sekula ez nuen ezer frogatzeko beharrik izan, baina pikatzen hasia naiz orain".

Aukerak egin beharko ditu, harrobia bai baitauka, errekurso artifizialik gabe. "Afro-rock", "musika berriak", "esperimentalak" eta gisako etiketak errekursoak direla uste du. Laistererako enkarguak baditu: Labordetarentzat, Pier Paul Berzaitzentzat, e.a. Amets bat: orkestra sinfonikorako estrenatzea edo kamarako musikariekin lan egitea. Zenbait klasiko monstruotzat dauzka (zerutiarrak ez baino lurtarrak izan ziren, halere), baina mundu horretakoa izan nahiko luke, musika hori "usaindu". Bejondeiola!

Jon Arano

Landare eskaintzarik zabalena Olaberrian

Olaberriko Hiperren dagoen Garden Center Ganbo dendak landare, arrain eta txorien (400 bat espezie) mundu zabala ikusteko aukera paregabea eskaintzen du, ia 2.200 m²tan. Bitxikeria eta aukera ugari. Joxeanjel Larretxearekin izan gara berriketan, eta landareetan zer eskaintzen duten argitu digu.

Loreetatik hasi, bonsaiak, zuhaixkak eta zuhaitzetara bitarteko espezie ugari aurki daitezke Garden Center Ganbon. Era honetako Gipuzkoako dendarik handiena da, 1.860 m². Handiak eta txikiak, barrukoak eta kanpoak, loredunak eta loregabeak, lehorrak eta artifizialak. Denetarik. Horiekin batera, landareen osagarriak (tresneria, ongarriak, lur, zeramika eta zumezko ontziak, liburuak, lorategietarako osagarriak...) ere bai. Larretxearen esanetan, "opari mundua bultzatu nahi dugu, landareen inguru hori zabaldtu egin behar dela uste baitugu. Ezkontza, jaumartze, San Balentin, Aitaren eta Amaren eguna..., edozein aitzakia da lorak oparitzeko une egokia".

Garaian garaikoari eutsiz, udaberria datorrela eta, denboraldiko edo baloiak landareen kanpainarekin hastear daude. Eskaintza zabala izango dute laister, lora eta lorontzietan. Horrekin batera, ezkontzei ere gogor ekingo die: auto eta Elizako dekorazioak, lore sortak, ezkontzetan ematen diren oparitxoak...

Ezinbesteko osagarria

Landareen boom-a nabaria da azkenaldian. "Batetik, orain artean loreak oparitzea nahiko desprestijiatuta egon da, baina gaur egun oso arrunta da



emakumeei loreak oparitzea. San Balentin egunean denda gizonetako beteta izan genuen. Baina hori bai, alderantzizkorik, gizonetako loreak oparitzea, ez da ikusten. Bestetik, gaur egun ez dugu imajinatzen landareri gabeko etxerik. Edozein bazterretan dago landareentzat lekua eta edozein lekutara egokitu daitezkeen landareak daude. Ezinbesteko osagarria bihurtu da. Bizitasuna, goxotasuna, elegantzia ematen du", adierazi du Ganboak.

Baina zer nahi izaten du jendeak? "Landare handiak asko saltzen dira, baina jendeak batez ere txikiak, biziak, momentuan oso politak daudenak erosten ditu gehien".

Gure inguruan gero eta landare mintegi gehiago badago ere, zenbait landare atzeritik ekartzen dira. Hala nola, barruko landareak Holandatik ekartzen dituzte; lorategietarako landare eta zuhaitzak Katalunia eta Valentziatik;

denboraldiko loreak Euskal Herriko mintegietatik ekartzen dituzte, eta hezietarako tua, erramu, pinuak... Larretxeak Astigarraga eta Adunan dituen mintegietatik.

Loreei hitz egin behar?

Loreei hitz egin behar zaiela entzun izan dugu behin baino gehiagotan. "Loreei hitz egiteak zentzu zabalagoa dauka: kasu piska bat egitea. Egia da loreari hitz egiten dion batek hautsa kentzen diola, ura bere neurrian daukan begiratzen diola, ongarria botatzen diola noizean behin, leku egokian daukala... Nire ikuspegitik loreei hitz egitea horixe da, kasu piska bat egitea. Baina jendeak orokorrean gutxi zaintzen ditu, gehienez, ureztatu egiten dituzte", esan digu Larretxeak.

 L.A.

Sagardotegia



a u l i a

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA



ZABALE

OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

Martxoaren 23an iritsiko da Korrika Goierrira

Orain 450 urte Beñat Etxeparek idatzitako 'Jagi hadi euskaraz' esaldiak ez du gaurkotasunik galdu. Lema horixe izango da Korrika 9-ak Donibane Garazitik Gasteizera, martxoaren 17tik 26ra Euskal Herrian zehar zabaldu nahi duen mezua. Hainbat kultur ekintza eta ekitaldi antolatu ditu Goierriko Korrika batzordeak Korrikaren inguruan.

Goierriko ibilbidea

ORMAIZTEGI:

1.386	Irizar	10:42
1.387	Udaletxea	10:48
1.388	Iberdrola	10:54

BEASAIN:

1.389	Salbatore	11:01
1.390	Gudugarreta	11:08
1.391	Antzizar	11:14
1.392	Geltokia	11:20

LAZKAO:

1.393	Hunolt lantegia	11:26
1.394	Lazkaomendiko bidegurutzea	11:32
1.395	Ator ondoan	11:38
1.396	Azkar pare	11:44

BEASAIN:

1.397	Anbulategi ondoan	11:50
1.398	Udaletxea	11:55

ORDIZIA:

1.399	Beasain-Ordizia muga	12:00
1.400	Geltokia	12:06
1.401	Udaletxea	12:12

ITSASONDO:

1.402	San Juan Eliza	12:19
1.403	Udaletxea	12:26

LEGORRETA:

1.404	Jaso lantegiko sarrera	12:31
1.405	Paper lantegiaren hasiera	12:36
1.406	Udaletxea	12:42
1.407	Gasolindegia	12:48



Ormaiztegiarrek aurten ere izango dute korrika egiteko aukera.

● Martxoaren 10, 11 eta 12an kuestazio eguna: Mahaiak jarriko dira Korrikako materialarekin eta kale animazioz ez da faltako. Momentu ondo-rengoak ziurta daitezke:

- Ordizian eta Beasainen igande arratsaldean. Dantzariak, trikitilariak, malabaristak, su malabarak, hankapaloak e.a. izango dira.

- Lazkaon igande eguerdian. Dantzariak eta txaranga izango dira kalea animatuz.

- Itsasondon ostiralean eta larunbat eguerdian eta gauena. Trikitixa izango dute lagun.

- Zaldibia, Idiazabal eta Seguran igande eguerdian.

- Ormaiztegin, larunbat arratsaldean.

● Martxoaren 17an Beasaingo Arku-petan, Goierri mailako Elkarteen arteko II. sukaldaritza txapelketa. Aurreko aldian hogeik parte hartu zuten eta oraingoan parte hartzea handitzea es-

pero da. Elkartekoek 8.30etarako egon behar dute bertan, arrain zopa eta rondoa txapelketara aurkezteko. Ondoren eskualdeko Korrika afaria. Aurrekoan 400en bat lagun bildu ziren. Bertan IV. txiste idatzien lehiaketako sariak banatuko dira. Bertsolariek eta Joseba Iparragirre trikitilariak alaituko dute gaua.

● Martxoaren 18an, kotxe karabana Goierri zehar, arratsaldeko 4retan Beasaingo mataderoko aparkalekutik irtenda. Gauean bertso jaialdia (ikus agenda).

● Martxoaren 23an, Korrika Goierri. Lekukoa pasatuko den herri guztietan izango da animazioa eta festa. Iluntzeko 8etan, Beasaingo Usurbe Antzokian eta 'Ai geala'-ren laguntzaz, Jon eta Aitor Sarasua anaiei emanaldia Juan Luis Lekunberrik pianoz lagunduta.

Goierriko Korrika Batzordea



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) BEASAIN
Tfnoa.: 16 11 05

ZALDIBIA

Korrika 9

Dakizuenek, AEKren eskutik, "Jalgi hadi euskaraz" lemapean burutuko da aurtengo Korrika. Martxoaren 23an pasako da gure herritik. Hori dela eta, Goierriko Korrika Batzordeak dei egiten die zaldibitar guztiei eta, bereziki, alderdi politiko, ikastetxe, udal eta herri-mugimenduei, egun horretarako antolatuko diren ekintzetan parte har dezaten.

Aurtengo Korrikaren inguruan presta litezkeen ekintzen azterketarekin batera orain dela bi urteko Korrikaren emaitzen berri ematen duen txostena ere plazaratu du AEK-k. Hain zuzen, azkeneko edizioak euskal gizartearen aldetik lortutako onarpena azpimarkatzen da informe horretan. "Euskararen lurrean hizkuntza hedatu behar da eta hedatu behar da hiztunak ugalduz" dio lema printzipalak.

Euskal Ligatik kanpora

Bere garaian jakinarazi genuen moduan, herriko pilotariak, kadete eta jubenil kategorian, Euskal Ligan jokatzeko aritu dira. Baina aurrerako bileretik gabe dira joan den larunbatz gerortzik, nola kadeteek hala jubenilek galdu egin baitzuten Ortuellaren kontra. 22-8 eta 22-9 izan ziren emaitzak. Bizkaitarrek garbi erakutsi zuten gehiago zirela eta horrelakoetan ez dago kontrarioari zorianak ematea besterik. Zorion horien zati bat, ordea, etxerako gorde nahi genuke, izan ere, batik bat, jubeniletan oso paper ona egin baitute gure mutilek.



Aurrematrikula

Lardizabal Herri Eskolako zuzendaritzak jakinarazi duenez, 1995-1996 kurtsoarako aurrematrikula irekirik dago martxoaren 14ra arte. Datorren kurtsoan haurrak eskola horretan hasi nahi dituzten gurasoentzat da oharra. Izen emateko ordutegia honako hau da: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara. Matrikula egiteko familia-liburua eraman behar da.

Hamaika milioi kulturarako

Kultura Batzordeak eginga dauka urte honetarako plangintza. Aurreko urteetako esperientzia eta udal-gerentziaren proposamenetan dago oinarriturik plangintza hau. Besteak beste, Juan Inazio Iztuetari maiatz aldera egingo zaion omenaldia da urteko ekintzarik nagusienetarikoa. Aurrekontuen zakuari ere ekintza horrek egingo dio, Santa Fetako festen ondoren, zulorik handiena. Bi milioi gastatu ditu Udalak omenaldi horretan.

Badago beste proiektu orijinalik ere. Esate baterako, herriaren deskribapena egin nahi litzateke nola argazkiaren bidez hala idatziz. "Zaldibia 1995an"

izango da lan horren lema. Helburua, berriz, hurrengo belundiei gure izaera, historia eta euren jatorriaren hariak hobeto loturik eskaintzea.

Gaineratiko ekintzak hauek dituzue: pintura, musika, eskultura, fotografia, teatro, irakurketa eta idazketarako zaletasuna bultzatu; Zaldibiko historia ezagutarazi, mapa toponimikoa osatu; eskulan tailerrak antolatu; euskal dantzak, bertsolaritza, erakusketak, bideo eta diapositiba emanaldiak...; haur-iharduerak eratu; "Kilometroak", "Herri Urrats", "Nafarroa Oinez", eta abarri diru-laguntzak; galtzada erromatarra konpondu; kirol instalazioak hobetu eta kirola bultzatu; "GOIERRITARRA"ri diru-laguntza; Herri Eskola babestu; euskararen aldeko ekintzak...

Esan bezala, gastuek 11.000.000 pezeta jotzen dute, partidarik handiena herriko festek xahutzen dutelarik: 4.210.000 pezeta, Txamarretxe, Saturdi, San Isidro eta San Juan barne. Iz-tuetaren omenaldia, esan bezala, 2.000.000 kostatzen da. Gaineratiko partidak honela banatzen dira: zenbait konponketa, harpidetzak, bulegorako materialeak, 400.000; mapa topografikoa, 500.000; Auresku txapelketa, Dantzari txiki eguna, haur-parkea, liburutegia, erakusketa, 720.000; "Herri urrats", "Nafarroa oinez", etab., 210.000; zenbait lan-kontratu, 580.000; Lardizabal eskolari, 960.000; beste zenbait subentzio, 735.000; kiroleterako, 580.000.

 Rufino Iraola

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37

'Txanoberritsu' umeentzako jolas txokoa

Udaleko Euskara Batzordea euskara bultzatzeko ahaleginetan ari da atsedetik gabe. Ahelegin horretan Txanoberritsu jolas txokoa antolatu du. 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat jolas txokoa eskaintzen du Txanoberritsuk, eta jolasen bidez eta etxeko nahiz eskolako giroetatik kanpo, haurren artean euskaraz hitz egiteko ohi-tura sustatu nahi du.

Lehen fasean (abendurarte izan zen) 37 haur matrikulatu ziren eta 2.enean (urtarriletik ekainera) 58. Ume gehienak B eredukoak dira eta euskaraz hitz egiterakoan zailtasunak dituzte. 7 begirale tituludunen ardura-pean izaten dira haurrak, larunbatero 3 orduz. Jolasak, antzerkiak, abestiak, eskulanak eta beste hainbat gauza egiteko aukera izaten dute, beti ere euskaraz. Haez gain, txotxongiloak eta pailazoak ikusteko aukera izango dute.



Hilean behin irteerak egiteko asmotan dabilta, ingurua piska bat aldatzeko.

Aurten hasi den programa hau froga bezala hasi bada ere, bere betebehara ezin hobeto betetzen ari da eta lehen epean parte hartutako haurrei eginiko inkesta baten arabera, haurrak gustora daude. Beraz, ekainean bukatuko da 2. epea, baina datorren ikasturtean matri-

kulak berriro zabalduko dira.

Sarasua anaiak

Jon eta Aitor Sarasua bertsolariak, Juan Luis Lekunberrik pianoan lagunduta, 'Fauna txiki bat, bertso berritan' ikuskizuna eskainiko dute Beasainen, martxoaren 23an, Usurbe Antzokian, 20.00etan. Goierrin eskainiko den

emanaldi bakarra izango da. 'Ai geala' euskara taldeak antolatu du eta sarrerak honako leku hauetan izango dira salgai, 500 pezetatan: Beasaingo Loinatz, Basakana eta Arrano tabernetan, Ordizia-ko Etxanizen, Lazkao-ko Gerrikan, Zaldibiko Illatin eta Segurako Elorrin.

Izaskun Salazar

LAZKAO

'Inauteriak 95' San Prudentzio eskolan



Aurten ere ohiturari jarraituz, San Prudentzio eskolak ospatu ditu bere inauteriak. Ikasturteko ekingiza osagarri honen helburu nagusia, gure herriko ohitura zahar hau jai giroan ospatzea izaten da. Aurtengoak aldiz, beste helburu berezi bat izan du: Euskal Herriko inauteriak ezagutzea, hau da, gure kul-

tura ezagutzea. Honetarako material desberdina erabili dute eskuartearen (bideo, liburu, argazki...). Guztiak eza-gutu ondoren, talde bakoitzak irakaslearen laguntzaz, jantzi desberdinak aukeratu zituen: Iturengo ttuntturuak, Lesakako zakuzaharrak, Abaltzisketako

txantxoak, kaldereroak, Goizueta-ko zagi-dantza, Zugarramurdiko sorginak.

Prestaketa lanetan gurasoen laguntza eskertzekoa izan da. Lan guzti hau ikuskizun egin genuen eskolako atarian (astearte inauterian) eta amaieran Miel Otxin erre zuten, bertsoz hurrengo urterarte agurtuaz.

Hainbat guraso eta herritar gustora eta irrifartsu egon ziren ikustaldian eta are gustorago amaitu zuten irakasle eta ikasleek, Guraso Elkarteak prestatzeko txokolate-jan on batekin.

Lehengo inauteriak berpizten

Herriko ohitura zaharra berreskuratzen nahian, dabilta Zawopikoak. Inauteri astearteko arratsaldean, zenbait gazte moztortuta atera ziren, dantzari, limosna biltzaile, eta soinu-jolez osatutako taldean. Moztortu jantziak, garai batean bezalakoak izan ziren: alkan-dora, galtza eta alpargata zuriak, lepoan zapi gorria eta buruan txapel gorria. Talde hau auzoz auzo ibili zen dantza eta eskean. Aintzina esku artean erratz bana ere eramaten zuten, ondoren zetozonei bidea garbitzeko.

M. J. Madariaga

Udalaren inguruko zenbait berri

Emakumezkoen Babesetxea tratu-txarrak jasandako emakumezkoen laguntza eman asmoz jarri zuten martxan bere garaian Beasain eta Ordizia-ko udalek. Zerbitzu hori ez da askorik erabili eta hori dela eta bere jarraipena birplanteatzen ari dira Gizarte Ongizateetako arduradunak.

“Euskara merkatal mundura” kanpainak emaitza positiboak izan ditu, Euskara Zerbitzuko arduradunaren esanetan. Dendarien artean, orohar, ondo hartua izan da proiektua eta euskararen aldeko borondatea sumatu da, eragozpenak eragozpen. Hutsunerik handiena merkatarien maila idatzian agertzen omen da, alfabetatuen kopurua bajua da.

Udal Liburutegiari dagokionez, bera informatizatzea espero da laister, 10. urteurrena betetzen duen honetan. 12.000 liburukien katalogatze lanak 2 urtetan amaiturik egongo dira. Hobe-kuntzaz gain, azken puntako teknologiak (CD ROM, e.a.) ezarriko dira.

Bertsolari gazteak elkarteetan

Goierriko Bertso Eskolak antolatuta eta bertsolari gazteei bultzada bat emateko asmoz, bertso afariak prestatu dituzte. Bertsolari gazteok plazaratzeko aukera handirik ez dutenez, Goierriko zenbait elkarteetan egingo diren ekitaldien bitartez jendeaurrean praktikatzeo aukera ematen zaie. Xehetasun gehiago egutegian aurki ditzakezu.

OPEkoek zorte txarra ligan

Pilotari euskaldunak eta errioxarrak elkartzen dituen ligan ezin izan zuten Ordizia Pilota Elkartekoek emaitza onik lortu. Pala motzari dagokionez, Beti Alai-n jokaturako finalerdietako joaneko partiduan Gelbenzu eta Goiburuk, paper ona egin arren, ezin izan zuten Arraun Olinpikoen aurkako norgehiagoka irabazi. Azkenean 40-32 galdu zuten. Senior mailan ia-ia ibili baziren, beste horrenbeste junior mailan, larruzko paletarekin Berasategi eta Aizpuruak 35-31 galdu baitzuten.

 **Aitor Calvillo**

Ordiziako musikaren lehen mendeak: 1600-1800 (I)

Ezagutzen dugun musika-adierazpen zaharrena Udalaren akordioen liburu bidez jaso daiteke eta danboliñari eta danborrari loturik dago. Danboliña eta danborra edozein festetan ere oinarritzko elementuak ziren eta dira.

XVII. mendearen hasieretan jai-ospakizun guztiek elementu amankomun bat zuten: zezenak. Beraz, musikak dantzak (Ezpata- dantza, e.a.) alaitzeaz gain, zezen-festei laguntzeko ere balio zuen, eta horren lekuko 1621eko zezenketarako Udalak Araitzeko txanboliteroaren zerbitzuak kontratatzen ditu. Musikari hauen zerbitzua eliz-ospakizunetarako ere erabiltzen zen; 1622ko Andra Mari Jasokundeakoaren egunerako Ordiziarak ekarri zen Lazkaoko danborra adibidez.

1747ko urriaren 18an batzar bat ospatu zen udaletxean. Tartean Aita Sebastian Mendiburu ere bazen. Batzar hartako akta elizgizonen botere esibizio-erakustaldi oso bat da: jaietako musika jotzea eta bi sexuen arteko erlazioa mugatzen zen. Dokumentu horrek baieztatzen digu txanbolitero bat eta danbor bat bazirela Udalaren soldapean; baita ere musiko juglarrak ere izaten zirela herriko festetan. Izan-



dako arazo ekonomikoak somatu ditzakegu batzar hartan: soldata kendu eta ekitaldiko ordaintzen hasi zitzaizkien musikariei.

1750ko biltzar batean egoeraren larriagotzea aipatzen da, musikoen soldata jasanezintzat jotzen da eta hauekiko hitzarmen bat egitea proposatzen. Data horretatik aurrera musikoen kontratazioan ez da desegokitasunik ikusten; txanboliteroen batzordeak eratzen dira hutsik geratzen diren postuen ordezkotza egin dezaten, 1759, 1760, 1765, 1769, 1770, 1771, 1778, 1781 eta 1784 urteetan.

Garai hauetarako musikoaren gutxienezko betekizunak San Pantaleon bezperako eta egunerako, Santiago eta bere bezperako, Santa Ana, Kontzezio bezpera eta egunerako, Korpusaren zortziurrena eta Inauterietako egunerarako izan behar zuten.

Aldi hartako txanbolitero guztien artean ezin utz liteke aipatu gabe Maruko famatua, Tolosako txanboliteroa: akordioen liburuan agertzen denez, 1782ko uztaillean ekarri zuten Ordiziarak.

XVIII bukaerarekin batera, halako ospakizunetan indar gehiago hartzen hasten dira beste instrumentu batzuk; horrela, 1799ko apirilaren 21eko bilkuran, kantari, musikari danborzale eta txanboliteroei dagokionez, egokiena deritzana egiteko baimena ematen da, izan ere 1800ean Ordizian ospatzen baitziren Biltzar Orokorak.

Gertaera honi esker hasi zen musikaren mende haundiena loratzen Ordizian. Ezpairik gabe, XIX. mendea da guztietatik emankorrena, organoaren agerpenarekin hasi, eta lehen orkestra iritsi arte, lehen musika eskola sortzearekin. Gure herriko musikaren historia behin betiko markatuko zuten gertakari guztiok.

Erreferentziak: Ordiziako Udaletxeko Artxibo Orokor Historikoa eta Karmelo Etxegaray eta Serapio Mujikaren Ordiziako Monografia Historikoa.

 **Jorge Rodriguez**

Herri txikien gora-beherak

Kaletarrak herri txikietara joateko moda gero eta zabalduagoa dago. Baserritarrak kalera jaistekoa, oraindik ere mantendu egiten da. Gaintzak gertutik bizi ditu bi egoera hauek, eta baita mendi kaxkoan bizitzeak dakartzan ur eta saneamendu arazoak ere. Bertako alkatesarekin izan gara Gaintzaren oraina eta geroa zein den eta zein izan daitekeen argitzeko asmotan.

120 biztanletan, hortxe dabil Gaintzaren biztanle kopurua. Herri txiki askoren ildo berdinetik jarraitu du; hau da, kalera joan da hainbat gaintzar. Baserritarrak kalera eta kaletarrak baserri giroetara. *"Kaletarrak herri txikietara etortze hori, espekulazio kontua da, txaletak eginda daude, inbertsioagatik egiten dute... baina hobe izango litza-teke hutsik dauden baserriak beteta egotea, eraikuntza berriak egin behar-rean"*. Dena den, alkatesaren esanetan, *"baserriak ez dituztelako saltzen, batzuk erortzen hasita daudelako, diru asko eskatzen dutelako... ez dira betetzen. Gazte asko gustora sartuko litza-teke, Gaintzan bertan bizitzen jarriko lirakeenak, baina..."*

Urarekin arazoak

Ur eta saneamendu arazoak izugarriak ditu Gaintzak. *"Ibiur (Ikaztegi-tako zati txiki bat, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketa hartzen dituen) urtegia egitera doaz, baina ur hori Tolosa eta Andoain aldera eramateko izango da. Mutur aurrean urtegia izango dugu, baina urrik ez guretzako"*. Duela urte dextente, 7 puntu hartuz, uraren ekarrera egin zuten auzolanean. *"Kantitate dextente bildu zen momentu hartarako eta herrira eraman zuten eta handik baserrietara, nahi zuten guztiek. Baina betikoa gertatu zen: herriko*



diruarekin egin zen, baina batzuk lan egin zutela eta besteek ez. Haserretu egin ziren herritarrak eta orduan privatizatu egin zuten ura. Elkarte bat sortu zen eta ura elkartearena da. Orduan, baserri bat hartu nahi eta ura baserrira eraman nahi izanez gero, Elkarteari ura eskatzeko, 200 mila pezetatik gora ordaindu, gehi ekarrera guztia ordaindu behar da". Udala saiatu da elkarte hori publiko bihurtzen, baina ez dira konpondu baserritarrak. Beste arazo bat ere badago ur hornikuntzan alkatesak argitu digunez: *"kantitatea ez da nahikoa, ekarrerako tresneria oso egoera txarrean dago, eta Gaintza oso altu dagoenez ura bonbeatu behar da beti. Kantitate gutxi, kalitate eskas xamarra eta bonbeatzeko sistema ere nahiko kaxkar. Diputazioarekin eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin saiatu gara hau konpontzen baina 4 urteotan ez dugu ezer txo ere lortu"*.

Saneamenduari dagokionean ere, baserri bakoitzak ahal duen eran konpondu behar izan du, zulo beltzak... eginez. *"Tolosaldera hustutzea zen gure asmoa baina hor urtegia dihoa"*.

Herri txikion etorkizuna, baserrien etorkizunarekin lotuta dago alkatesaren ustez. Batzuk lantegira joan, besteak baserritik bizitzen jarraitu, eta gu txi batzuk turismorako apustua egin dute. *"Nahiko zaila da turismoan sartzea, denak ezin dira hor sartu. Egin daiteke, baina guztiek turismoa bultzatzeak batetik aberastasuna dakar, baina bestetik, galduarazi egiten du bertako aberastasuna. Turismoa ez du gehiegi bultzatu Gaintzak, baina pasoko lekua da eta asteburuetan jendea josita egoten da. Turismoa bultzatu behar da, baina kontu handiarekin, gailera beti baserriarentzat izaten baita"*.

Guztia ordea ez da beltza Gaintzan. Kultura mailan ohitura zaharrak berreskuratzen ari dira. Gabon eskea esaterako. Lokal txiki bat ere egokitu dute kultur ekintzak egiteko. *"Beste bizi bat eman zaio herriari"*. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) ere sartuta dago Gaintza, hau da, euskaraz funtzionatzen du.

 L.A.



GOIAGI
OKINDEGIA
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak



Tfona: 885500 ORDIZIA

12 euskaldun berri herrian

Otsailetik Guraso Elkartek antolatu eta Udalaren laguntzaz antolaturiko euskara ikastarora joaten direnak, nork gehiago, nork gutxiago, piskanaka gure hizkuntza ikasten ari dira. Izan ere, maila behereneko pertsonen, hau da, euskararen ezagupen hutsa dutenien zuzendua sortu da ikastaroa, 12 dira egunero ordu t'erdiz euskal gramatikaren lehen urratsak Iñaki Amundarain irakaslearen eskutik lantzen dituztenak. Honen esanetan, edozein euskaltegitan maila berdinean aplikatzen den metodoa ari da aplikatzen, talde txikia izan eta guztien arteko konfidantza irakaskuntzaren ikuspegitik faktore positiboa izanik.

Hainbat arrazoiek bultzatuta etorri dira ikasleak ikastarora. Euskal herri-



tarra izan eta euskalduna ez izatearen kontzientziak bultzatuta batzuk; lanaren beharragatik besteak, gaisoeikin komunikatzeko euskara behar duen erizainaren kasuan bezala. Bitxikeriarik ere bada: duela gutxi goierritartu den Jacako neska bat "jakinminez" inguratu da.

Hasera bateko gogo eta asmoek ordea oztopoak aurkitzen dituzte laister bidean. Hizkuntza beraren zailtasuna, aditzak eta hauek buruan izatea da neketsuena batzuentzat, edo eta gainontzeko ikasleen aurrean euskaraz "hitz totelka" aritzeko lotsa dira arruntenak.

Ikastaroa ekainerarte luzatuko da ikasle-irakasleak datorren urtean ere jarraitzeko asmotan badira ere, Udalaren laguntzaz noski. Momentuz nahiko lan badute denek aditz sintetikoetara iristerako. Ikasle batek dioen bezala, "ez dakit zerbait ikasiko dudana, baina saiatu, saiaturiko naiz".

 **Iñaki Leturia**

Ormaiztegiko San Andres Abesbatza

Abesbatza hau gerra ondoren sortu zen. Garai hura ezagutu zutenek ondo baino hobeto dakiten bezala, 1930. hamarkadak gudate zibila eta bere hondamendiak ekarri zituen; 1940. hamarkada, berriz, oparoagoa izan zela esan daiteke. Ormaiztegiko abesbatza izan zena bi hamarkada horien aldekarekin (1939-41) batera sortu zela esan dezakegu, urte zehatza ematea zaila gertatzen da.

Hamarren bat urte inguru iraun zituen San Andres abesbatza herrikoien haren zuzendaritza Ramon Zerrajerria ohiaren eskutik egon zen. Baina zuzendaritza lana fin burutzeko esku bat bota ziotenak Serapio Letamendia zena, Paskual Larrañaga eta Migel Lasa izan ziren, entsaiotan ahots bakoitza zuzendari desberdinen esanetara aritzen zela eta abeslari gehienek musika arloko ezagupenik ez zutenek belarriz abesten zutela kontutan harturik guztien lana beharrezkoa gertatuko zen.

Abesbatza adin desberdineko 40-50 gizon eta emakumez osatua egon zen. Sortu zenean helduenek 30-40 urte inguru izango zituzten, gazteenek berriaz 15 urte inguru. Abesbatza harek bai



herrian bai eta kanpoan ere abestu izan zuen. Herrian urteko edozein garaletan abesten bazuten ere, urteko egun jakin batzuetako kontzertuak bereziagoak izaten ziren, hala nola festetakoak, Korpus edo udan bainuetxeak. Festetan, beste egun batzuetan bezala, Parrokiko saloian abesten zuten, Korpusetan berriz eliz atarian. Udan bainuetxean ere abestu ohi zuten; bertara garai haretan Donostiako Orfeoien zuzendaria zen Rezola jauna etortzen zenez, abesbatzak opari gisa kontzertua eskeini izan zion. Kontzertu ostean abesbatzaren ekintza eskertzeko asmoz, partaideek jaki gozoak dastatzeko aukera izaten zuten bainuetxean.

Herritik kanpo burutu zuten lehen

ekitaldia 1943eko abuztuaren 4ean Lekeition izan zen, bertan meza eta kontzertua abestu zituztelarik. Ondoren Getari, Berastegi, Loiola, Seguran... izan ziren gure herriko abeslariak. Askok izan ziren abestu zituzten abestiak: Urrundik ikusten dut, Niño era el buen Señor, Goizeko izar, Elurra mara-mara, Aldapeko sagarraren, Lau atso... Azken abesti hau San Andres abesbatzak Beasaingo Loinaz abesbatzak baino hobetogo abesten zuela esaten omen zuen bere zuzendari zen P.J. Iguain jaunak.

Ormaiztegiko abesbatza ahots onez osatua zegoela eta abeslari gehienek musikarik jakin gabe oso maila ona erakutsi ohi zuela, garaikideak izan zirenetatik inork ez du ukatzen. Hura desagertu zenetik urte asko igaro dira baina herritarrok ez dugu beraia lana ahaztu; horren adierazgarri da 94.ean abesbatza haren itzala izan daitekeen beste abesbatza herrikoia bat eratzeko berpiztu zen nahia. Urte askotan herritarren buruetan egon den nahia oraingoan gauzatzeko aukera daukagu.

 **Aitziber Murua**

Errebotea: garai bateko kirol nagusia

"Segurako pelotaren historia" izenburua duen 2 ordu inguruko bideolana apirila alderako espero dute kaleratzea. Bideo eraketaz Juan Angel Egaña arduratu da, argazki bilketaz eta historiari Patxi Etxeberria, eta aho-tsa Aitor Ugaldek jarriko dio. Herri gutxitan bezala errotua egotea eta txuriz jantzi gabeko herritar gutxi izatea da lan neketsu eta baliotsu hau egitearen arrazoia. Bertan, kronologikoki sailkatutako argazki-montaje baten bidez, errebote jokotik hasi eta 1942tik gaur arte pelotak eman duena, eskuz, erremontez nahiz puntarako xisteraz, jorratu nahi izan da.

Errebotea

Gaur egun desagertua eta ezezaguna den arren, begibistakoa da errebote jokoak izan zuten garrantzia. Oraindik ere "errebotea" deitzen zaio Kale Nagusitik Markesenerainoko guneari. Jatorrizko lekuan ez dagoen arren, hortxe dago oraindik botarria Zurbano kaleko pareta ertzean. Besteak beste 1890 eta 1910 artean Lazkao, Ataun eta Seguran behintzat errebote lehiaketak egiten zirena



Kaleak herritzean botarriak enbarazo egiten zuela eta kendu egin nahi izan zuten zenbaitek. Herritar batzuri esker ordea bertan mantentzea lortu zen. Argazkian: Patxi Etxeberria.

azaltzen da artxiboetan. Eta herriko zaharrenek ere entzuna zieten beraien aurrekoei, errebotea herriko kirol nagusia izan zela.

Errebotea 1870 aurretik ia Euskal Herri osoan jokatzeko zen eta gaur oraindik Baztan eta Malerreka-ko bailaretan bizirik dirauen *laxoan* du bere sorrera. Jokalariak aurrez aurre jarrita

erdian eginiko marra batek bitan zatitzen du kantxa, eta jokalariek pelota aurkakoaren zelaira bota behar zuten. Honen sorrera, artzaiek larreetan (pelota-soro edo soropilak) artabizarrez, txuikinez (artazorroa) eta antzekoez egindako pelote-

kin praktikatzeko zuten jokoan aurki daiteke. Ondoren herrira jeitsi eta kirolak aprezioa lortu zuten arte.

Baina errebotean aritzeko ezin bestekoa da kantxak frontisa izatea, botarrian egindako sarea haren kontra bidalita joko has dadin. Bi aldeak bereizteko marra (pasamarra) ez dago erdi-erdian, frontisetik 32ren bat metrora dago eta botarria ere honen erdian egoten da kokatua. Talde bakoitzak 5 lagunez osatua dago, horietako bat sake egilea dela; honek sakatzeko xestoa edo xistera kendu behar du eta gero berriz jantzi. Jokoa funtsa pelota, lehen botean edo airez, pasamarra gaindituz botatzea da. Jokoa tenisean bezala hamabosnaka kontatzen dira (kintze, treinta, koarenta eta joko), eta partidua 13 jokora izaten dira. Jokoa egin ahala, taldeak kantxaz aldatzen dira. 7 epailek zuzentzen dute partidua, eta *txaxaria* deituriko tanto kontatzaileak, tantoak kantatu egiten zituen komentariotxoak eginez. Pelotak 130 gr. ingurukoak izaten dira eta plazak 90-100 m.-inguruko luzeera eta 16ren bat m.-ko zabalera izaten dute.

Iparraldeko herri askotan nahiz Blabonan edo Zubietan erreboteak bizirik iraun du eta jokoa nondik norakoak ikusteko aukera aparta da.

II. Elorri Idazlan Sariketa

Hainbat gaztek martxoaren 5ean eskiatzera joan behar zutela eta sari banaketa martxoaren 12ra atzeratu zen. Ekitaldia Kultur etxean izango da eguerdiko 12etan.

✍ Joseba Telleria



Paretaren aurkako jokoen nagusitasuna eta errebotearen beherakada batera etorri ziren. Harrez gero, zurbano kaleko pareta ertzean dago botarria.



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



ALKARTASUNA LIZEOA
KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

- * 2 urtetik 18 urterarte eskolarizazioa.
- * Garraio zerbitzua behar dutenentzako DOHAN.
- * Informatika, teknologia eta irrati emisora.
- * Hizkuntz laborategia: ingelera eta frantsesa.
- * Loragintza eta Astronomia.
- * Nazioarteko elkartrukeak: Oxford eta Gales.

San Gregorioko pilotalekua martxa onean

Negua ere halakoxea doakigunez, aurrez jarritako epe barruan egingo dira San Gregorioko frontoi berriaren lanak. Ezeren okerrrik ez dela, maiatza bukatu edo garagarria erdirako, aspaldiko ametsa beteta izango dute sangregoriotar askok eta askok. Lanak abenduan hasi ziren eta 6 hilabetetan menderatuko dituzte. Gogoratu, lanen adjudikazioa 78 milioi pasatxoan egin zela. Leku estalia izateaz gain, sangregoriotarren pilota-zaletasuna ere beteko al du frontoi berriak? Afizio eta irakasle faltarik ez da San Gregorion.

Eta ohar txiki bat Samartingo pilotalekuaz. Auzoetan larunbat arratsaldez jokatzeko ari den futbol-txapelketa eten beharra izan zuten otsailaren 25ez. Euria gogotik kanpoan eta ittuteak barrura. Komeni litzateke ahalik eta azkarren zirrituak erabat ondo ixtea. Gainerakoan ikusle askorekin eta giro onean ari da egiten txapelketa.

Etxe berriak poliki poliki

Lehen ere jakina da jende sobrarik ez



dugula herrian. Iazko urte bukaeran 1.635 lagun bizi giren Ataunen, hoietatik 835 gizonezko eta 800 emakumezko. Etxe premia begi-bistakoa. Ba, Samartinen ia amaituta daude mediku-etxe ondoan egin diren 8 etxebizitza unifamiliarak. Gauzak ondo, hil hau bukatu aurretik bizitzen jartzeko modua izango dute bertako bizilagunek. Piñane ondoan egin duten 6 bizitzako etxea ere azken erremateen faltan dago.

Eta futbol-zelaiko etxeak noizko? Hori galdetuko du batek baino gehiagok. Udaletik esan zaigunez, Jaurleri-tzatik proiektu etabar, eman beharreko pausoak ematen ari dira. Herrian bertan zeuden arazoak ere konponbidean

omen daude. Ea hurrengo batean zehatzago dakigun etxe berri hauen martxa.

Azken Udal plenoa

Azken pausoak ematen ari da oraingo Udala. Maiatzera begira daude alderdi politikoak, baina egunero ko lana ere hor dago. Joan-dako asteartean iluntzeko 8etan hasi zen Plenoan gai garrantzitsu batzuk bazeuden. Besteak beste, eztaba da dexente sortu duren etxez etxeko laguntza zerbitzuaren adjudikazioa egitekoa zen eta bide batez laguntza hori jaso dezaketenen zerrenda onartzea. Eta beste gai bat, Atauni buruzko Plan Estrategikoaren oinarriak edo onartu nahi ziren.

Joxe Begiristainen ordezkoko

Orain arte Joxe Begiristainek ederki asko bete duen lana, hark bezain ondo egiten saiatuko gara hemendik aurrera. Zuen esanetara.

Jon Aizpurua

ZEGAMA

Udal Liburutegia

Udal Liburutegiko liburuak mailegatzeko guztioi jakinerazten zaizue, 1995. urtean irakurtzeko liburuak etxera eraman nahi dituenak, aurtengo kuota ordaindu beharrean dagoela. Ordaintzeko epea, apirilaren 29an amaituko da. Honez gain gogoratu, oraindik zenbait jendek aurreko urteetakoak ere ordaintzeko dituela.

Frontenis txapelketa

Igo Frontenis Txapelketako partiduek aurrera jarraitzen dute. Hilaren 11 eta 12an VIII. jardunaldia jokatu du te honoko bikoteok: Jose Migel Encinas eta Aitor Azurmendi Igor Ormazabal eta Urko Gorrotxategiren aurka; Iker Gereño eta Asier Berasategi, Roman Leoz eta Iñaki Madinabeitiaren aurka; Asier Landa eta Iñaki Larrea, Mikel Goiburu eta Joseba Zubizarretaren aurka; eta Asier Landa eta Iñaki Larrea, Igor Ormazabal eta Urko Gorrotxategiren aurka. Datorren asteburuan berriz, (18 eta 19an), Iker Goiburu eta Asier Berasategi, Mikel Goiburu eta Joseba Zubizarretaren aurka; Iker Alzelai eta Joseba Izagirre, Igor Ormazabal eta Urko Gorrotxategiren aurka; Roman Leoz eta Iñaki Madina, Urko Agirre eta Urko Egimendiren aurka; eta Asier Landa eta Iñaki Larrea, Urko Gomez eta Jose Ramon Zurutuzaren aurka.

Futbola

Aitzgorri taldeko infantilek berriz, Ilintxa taldearen aurkako partidua jokatu du 12an. Bestalde, Kopako partidua noiz izango diren zehazteko dago oraindik.

Zinea

Igandeetako pelikulei dagokienez azkenik, 12an 'Los tres mosqueteros' izango da ikusgai, eta 19an berriz, 'El libro de la selva'. Guztiak, arratsaldeko 5etan.

Eduarne Albizu

Aateak Oria ibaian

Nere aurtzaroan egazti mota au eza-gutu izan nuen gure etxean. Ollo-lokak berotzen zituen aaten arraultzak eta, 20-25 egun igaro ondoren, aatekume politak jaiotzen ziren. Sortu eta leen-dabiziko egunetan, ttapa-ttapa, ipurgaña astinduaz, etxe ondoko makaldian ibiltzen ziren, bañan bein amabost egun pasa orduko ibai iskiñan igeri asten ziren naiz amaordek klok-klok deitu. Illunabarrean etxeratzen ziren. Gero, aunditzean, beren kixa ibili eta, beti, gauerako etxeratu.

Gerora, 1945 urtean, gure anai batek aate txuriak jarri zituen. Zaperoarekin ondo gobernatzen zituen eta, guri-guriak zeudelako, jatea erabaki zuen. Urte artan bertan, iraillean, orduko Villafraña de Orian, Kongreso Eukaristiko-koa ospatu zan eta gure parroko neskatx aur batzuk aingeru jantzita joan zirelarik, aate aien lumekin egindako egoak eraman zituzten. Urteak aurrera egin zuten eran, egunetik egunera, Oria kutsaduraren atzaparretan erortzen joan zan eta ibaian ez zegoen aate bakar bat ere. Bañan kutsadurak kutsadura, gaur egun oso eder eta politak dauzkagu, ondorengo asiera au izan zutelako eta, geroz, laguntzaille onak ere badi-tuztelako.

89ean, erriko festa buru inguruan, Andra Mari jaiak, aateak ikusi nituen ibaian eta ala esan nien etxekoei: *"Festarako konbiatuak iristen asi*

zaizkigu". Geroz jakin nuen Ibarreko Ximonek 6 aate marroi eta 2 antzar zuri ureztatu zituela. Berdin egin zuen Kaxetako Patxik ere aate txuri bat ibai-ratuz. Udaberrian, kantu bereziekin adieraziz, maitemindu dirala jabetzen gera. Arraultzak egiten dituzte eta ama lokatuak arraultzak berotu ondoren sortzen dira palmadun oek. Kolore guztietakoak dauzkagu, marroi, txuri eta txuribeltzak ere bai. Guztira 60 edo 70 biltzen dira, antzarra buru dutela (orain bakarra daukagu, besteak anka egin zuen eta).

Api edo kabiak gure etxeetatik ikus-ten ditugu, ibaiaren alderdi bietan egi-ten dituztelako. Aateak, txikiak dire-nean, ugoldeak eraman izan ditu eta baitare arrapatu katu amak eta, bestela, arrano gosetiak. Penagarria benetan.

Goizean, antzarrak "diana" jotzen diete bere kantuarrekin. Denak biltzen dira eta batzuk ibaian eta besteak egan, aruntz eta onuntz ibiltzen dira. Beko kaleko andre ta gizonak saiatzen gera janaria botatzen. Gure etxeetako leioak ireki orduko, azkar batean inguratzen dira, ondo baitakite arrantxo ordua iri-tsi zaiela. Besteak beste, meritu aparta dauka Jose Martin Garin Ordiziako okiñak. Mutil au, gure errian, "Arku-peta" edo "Lukusindarren panaderiko" izenarekin ezagutzen degu. Goizero etortzen da bere bezeroei ogia ekartze-ra eta, bide batez, aatekin oroitzen de-larik, aurreko egunean sobratutakoe-tatik, poltsa aundi bat bete ogi ekartze-ko oitura dauka. Dena musutruk, gañera.

 Ibai-Ertz

Zuhaitz Eguna

Begi bistan dago Euskal Herriko paisaia ez dela duela 100 urteko bera: bertako zuhaitzen orde, pinudiek jantzi dituzte gure mendiak azken ur-teetan. Dena dela, bertako zuhaitzak galtzeko arriskuan zeudela ikusiz, gi-zarteak hauekiko ardura hartu du bere gain. Itsasondoko herritarrok ere ez dugu erresponsabilitate hau alde ba-tera utzi nahi izan eta, zuhaitz autok-tonoak suspertu nahiez, Udalak eta Herri Eskolak zuhaitz eguna ospatuko

dute martxoaren 11n, urtero Aldundi-ko nekazaritza eta naturagune depar-tamenduak antolatu ohi duen bezala. Urnietako Arizmendi baseritik asti-garrak ekarriko dira, hau idazterakoan oraindik erabakitze dagoen herriko lekuren batetan landatuko direlarik. Ea guztiok animatzen garen E.H.-ko basoek lehengo itxura izan dezaten.

 Eduarne Ayuso



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

MURUMENDI ESKOLA PUBLIKOA

"Euskalduna, plurala, integra-tzailea eta kalitatezkoa"



ZER ESKEINTZEN DUGU?

- * Bi urteko haurren gela (Dohainik).
- * Irakaslego berezia.
- * Pedagogi berrikuntzarako proiektuak.
- * Erreformen oinarritutako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako metodologia.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

- * Euskal Dantza-Musika.
- * Jaietan partaidetza.
- * Kultur Astea.
- * Irteera didaktikoak.
- * Gurasoentzako hitzaldiak.
- * Zine emanaldiak.

Aurre-matrikula epea: martxoak 14

Mariaratz, 1-3 (Porteria Auzoa)

☎ 880025

BEASAIN

Hard Core-tik Trash-erarteko bidaiak Ormaiztegin du geltokia

Ormaiztegi inguruan badabil zerbait gora-behera, ezker-eskubi, eta zerbait hori musika mundutik datorkigu. Gazte talde ederra biltzen da Ormaiztegiko bertako 'Bukaera' eta Beasaingoak izan arren, Ormaiztegin entsaiatzen duen 'Neverland' taldeen inguruan. Beasaingo Gazte Asanbladak argitaratuko duen maketan parte hartu dute bi taldeok.

G.- Nola sortu ziren Neverland eta Bukaera?

E.- Bukaera: Jendeak herri honetan duen musikarako grinatik sortu da, pertsona asko mugitzen da musikaren inguruan. Lehen 'Zatio' taldean geunden Bukaerako 3 partaide, geroxeago Iñigo sartu zen, ondoren Aitor eta Garik taldea utzi zuten eta errautsetatik Bukaera sortu zen.

Neverland: Lopez, Jon, Eskalante, Litzia eta Anderrek osatzen zuten haseran. Gero Anderrek utzi eta Jonek hartu zituen Lopezen makilak, Joseba sartzea-ekin batera.

G.-Maketako abestiez gain zenbat kanta dituzue?

E.-Bukaera: 10 bat abesti eta bi bertsio, bat Rouserena eta beste bat Anestiesiarena.

Neverland: guk ere 10 abesti ditugu, eta Fugazi, 4 Shins eta Stone Temple Pilotsen bertsioak.

G.- Talde batzuk aipatu dituzuenetz, zeintzuk dira zuen influentziak?

E.-Bukaera: Hemengoak asko, Bap, Anestesia, S.A., Ruido de Rabia... Kanpokoetan berriz, Nofx, Slager, Misfits...

Neverland: Ez dakit, asko dira. Bap,



Anestesia, Fugazi, Pearl Jam, Smashing Pumpkins...

G.- Talde gehienak dituzte arazoak lokalekin, ba al duzue halakorik?

E.- Neverland: Bai nola ez! Gu 4 hilabetez lokal baten eske aritu ondoren lokal penagarri bat eman ziguten. Iturkinak zeuden, argirik ez zegoen, desastre bat, lotsagarria! Gainera esan beharrean gaude Udala ez dela ezertarako arduratzen ez talde, ez gazte, ezta lokalekin ere. Gu orain Goiko-etxe baserrian gaude eta Bukerakoak Telleri baserrian.

G.-Nola sortu zen BGA-ren maketa egiteko proiektua?

E.- BGA-ren ekintzen barruan planteatu zen maketaren gaia, Beasaingo taldeak bultzatzearen helburuarekin. Udalaririk dirua eskatu eta 100.000 pezeta eman zizkiguten. Ez zen nahikoa eta orduan falta zitzaigun diru kopurua beste ekintza batzuetatik lortu genuen.

G.- Zein estudiotan grabatu duzue? Zer moduz joan da grabaketa?

E.- Neverland: Grabaketa Loiolako Cibertrack estudioetan egin genuen.

Talde bakoitzak 7 ordu genituen grabaketarako. Guztira 6 talde eta 2 aste izan ditugu.

Bukaera: Dena oso azkar joan zaigu. 3 abesti grabatzeko asmatan joan ginen eta azkenean bi grabatu genituen. Baina orokorrean oso esperientzia ona izan da.

G.- Lehenengo batean lagun batek arduratuta zera esan zidan: jendeak nahiago duela 3 zerbeza hartzea, maketa bat erostea

baino.

E.- Bai egia da. Taldea ezaguna ez bada, jendea ez da mugitzen. Kontzertuekin ere berdina gertatzen da. Jendeak ematen diozuna entzuten du, ez du batiere interesik.

G.-Nola ikusten duzue Goierriko eta Euskal Herriko egoera musikala?

E.- Goierri talde dexente daude, Ordizia, Beasain, Lazkao. Jende gutxik egiten ditu kontzertuak baina zerbait badabil. Euskal Herrian berriz, orain suspertzen ari dela dirudi. Musika mota asko dago baina betikoek egiten dute.

BGA-ak argitaratuko duen maketan agertzen diren taldeetatik Bukaera taldearen abestiak dira dudarik gabe sorpresa handienaz harrapatu nautenak. Kontutan izan beharreko taldea dugu hau. Neverland taldeak ere badu pertsonalitate indartsuaz gain beste punturik; hala nola, maketan sartu dituzten abestiak, 'Ihes' batipat, benetan apartak direla, Ea bide honetatik jarraitzen duten!

Kontaktuak: Bukaera: Asier 885775
Neverland: Jon 888710

Artza

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



Itsasondoko festak 1943

Argazki hau Donostian bizi den Jokin Sarasola itsasondoarrak ekarri digu, 1943ko Itsasondoko festetan aterea da, Plaza Zaharrean, dekoratu baten aurrean. Zutik (ezkerretik eskubira): Xerapio Mujika, Pello Urionabarrenetxea?, Andoni Martinez, Andres Calleja, German Lauzirika, Andres Salegi, Joxe Mari Arnaiz, Imanol Sarasola eta Julen Mujika. Makurtuta (ezkerretik eskubira): Jokin Sarasola, Migel Arakama, Anjel Alvarez, Bixente Arbilla "Markitiei" eta Inazio Lapitzondo.

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK**
P.V.C.ko LEIHOAK
Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

MILAGROSA IKASTETXEA ESKOLA BIZIA

Milagrosa Ikastetxeak jakin arazi nahi du, izen emateko epea irekirik duela. Argibide gehiago nahi izan ezkerro hemen aurkituko gaituzue:

Egutera, 7-10 ☎ 88 22 16
ORDIZIA



LANCIA ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI




- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN





GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA

KONTU KORRONTE ZENB.

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

Eman eta zabal zazu

GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA da eskuetan izaten duzun **GOIERRITARRA** aldizkariaren editorea, jakingo duzunez. Kultur Elkartea hau bultzatzeko (eta bi-debatez debalde jasotzen duzun hamabosterokoa sendotzeko) kanpaina bati ekin diogu, Goierriko kultur ondarea denon artean bildu eta goratzeko asmoz.

Idea faltarik ez eta eginkizun ugari ditugu aurrez ikusirik: Goierriko herrien gehigarri bereziak, liburuak argitaratu

udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo honekin ados baldin bazatoz eta laguntzeko borondate hori baduzu, "Goierritarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete ezazu ondoko bazkide txartela eta bidali iezaguzu.

Oharrak: honek ez du esan nahi aldizkaria ordaindu beharra dagoenik; dena den, harpide ezezik bazkide egingo bazina, mesede haundia egingo zeniguke euskaltzale goierritar guztioi; bestalde, bazkideek eskubide batzuk izango dituzte: opariak, liburuak eta kamixetak jaso, ekintzetan partaide izan...

**i txura baino
gehiago...**

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA